


**MEMORIA**

**2021**

**EUSKARA**

**ARLOA**



# AURKIBIDEA

## 00

### ANTOLAKETA OROKORRA

1. Euskara Arloaren planak	5
2. Batzorde Aholkulariak	6
3. Euskara Arloaren antolaketa	7
4. Euskara Arloaren aurrekontua	8
5. Kalitatea hobetzeko tresnak	9

## 01

### BARNE NORMALIZAZIOA

1. Kudeaketa-plana	11
2. Saitetako planak	12
3. Dekretua landu eta aplikagarri egin	13
4. Lankidetzaren beste erakunde batzuekin	14
5. Udal Kirol Patronatua	15
6. Brigada	16
7. Lan-mahaia	17
8. Komunikazioak sailetan	18
9. Jendaurreko ekitaldiak	19
10. Lanpostuei hizkuntza eskakizuna jarri	20
11. Langileen eskolaratzea	21
12. HE akreditazio probak	22
13. Langileen harrera	23
14. Zuzenketa-aholkularitza	24
15. Trebakuntza saioak	25
16. Euskararen Eguna udaletxean	26
17. Jantzi euskaraz di-da batean	27
18. Baliabide informatikoak	28
19. Kexak eta intzidentziak	29
20. Kontratuen jarraipena	30
21. Kontratu txikien jarraipena	31
22. Dirulaguntzen jarraipena	32
23. Ordenantzaren jarraipena	33

# AURKIBIDEA

## 02

### EUSKARAREN SUSTAPENERAKO EKINTZA PLANA

1.Zorionak diptikoa	35
2.Euskarazko produktuen katalogoa	36
3.HAZI HEZI aldizkariaren banaketa	37
4.Infografia <i>Familia hizkuntza Ume eleanitzak</i>	38
5.HH eta LHko ikastetxeekin lankidetza bilerak	39
6.DBH eta Batxilergoko ikastetxeekin lankidetza bilerak	40
7.Gu ere bertsoan	41
8.Euskara Zine Aretoetara 2020-2021	42
9.Ongi Etorri Euskarara	43
10.Lanbide Heziketako ikastetxeekin lankidetza bilerak	44
11. <i>Txikitasunean haundi</i> motibazio saioak DBH1	45
12.Motibazio saioak Lanbide Heziketa	46
13.D eredu Lanbide Heziketan	47
14.Uler-saioak Debarrena Integra / Bat Eginez	48
15.Euskara saioak Lanbide Heziketan	49
16.Euskaltegien lan-mahaia	50
17. <i>Gurasoak ere eskolara</i> egitasmoa 2021-2022	51
18.Euskaltegien lehiaketa: <i>Gaizki-ulertu lehiaketa</i>	52
19.Multikirolak 2021-2022	53
20.Transmisio Mintegia	54
21.Merkataritza lan-mahaia	55
22. <i>Betikoa, gertukoa</i> komunikazio kanpaina	56
23.Juan San Martin beka 2021	57
24.UEU dirulaguntza deialdia	58
25.Euskara dirulaguntza izendunak	59-60
26.Dirulaguntza errotuluak euskaraz	61
27.eibarko euskara .eus	62

# AURKIBIDEA

## 03

### EIBARREN AKEBAI

1. Akekideen erregistroa	64
2. Akekideen batzarra	65
3. Ekipoa	66
4. Super Akeak	67
5. Irakasleentzako motibazio saioak	68
6. Gazteentzako motibazio saioak	69
7. Kirol klubentzako motibazio saioak	70
8. Hamaika berbaldi	71
9. Hizkuntza-erabileraren kale neurketa	72
10. Errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina	73
11. Hizkuntza eskubideen ataria	74
12. Euskaraldia	75
13. Haurren aurrean, helduok heldu	76
14. <i>Eibartik Eibarrera</i> hitzaldi zikloa	77
15. Euskal eskaintzaren zabalkundea	78

## 04

### UDAL EUSKALTEGIA

1. Euskaltegiko plantila	80
2. Euskaltegiaren eskaintza	81
3. Matrikula epeak eta egutegia	82
4. Tasak eta tarifa bereziak	83
5. Taldeak, orduak eta ikasle kopurua	84
6. Ikaslearen profila	85
7. HABEren aztertzaileak	86
8. Formazioa	87
9. Kanpo ekintzak	88-89
10. Liburutegi zerbitzua	90
11. Egiartzatze gintza	91
12. COVID 19aren eragina euskaltegian	92

# ANTOLAKETA OROKORRA

## EUSKARA ARLOAREN PLANAK

**DESKRIBAPENA:** Euskara Arloak honako plan hauek ditu indarrean:

- ESEP Euskararen Sustapenerako Ekintza Plana 2018-2022
- Barne Erabilera Plana 2018-2022
- Eibarko Hiria, Euskararen Plan Estrategikoa 2016-2025 (AKEBAI)
- Udal Euskaltegiaren 2021-2022 ikasturteko plana



**EPEA:** 2021

**GASTUA:** Euskara Arloaren aurrekontu osoa

**BALORAZIOA:**

Euskararen erabilera normalizatzeko VI. plangintzaldia 2018ko urriaren 29an eman du ontzat Udaltzakoak. ESEP plangintzaldi berria euskara batzordean aurkeztu eta ontzat eman da. ESEPen kasuan ez da balorazio berezirik egin, AKEBAI martxan jartzeko egin zelako.

Udal euskaltegiak ikasturteko plana eta memoria egiten du

## BATZORDE AHOLKULARIAK

**DESKRIBAPENA:** Euskara Arloak indarrean dituen planen jarraipena bi batzorde aholkularitan egiten da:

### Euskara Batzordea:

- Presidentea, PSE-EEko zinegotzia.
- PSE-EEko zinegotzi bat.
- EH Bilduko zinegotzi bat
- EAJko zinegotzi bat
- Irabaziko zinegotzi bat/ Elkarrekin Eibar/Podemos
- Udal Euskaltegiko zuzendaria
- Idazkaria, Euskara Arloko zuzendaria

Bilera hilean behin egiten da. ESEP eta AKEBAIko gaien jarraipena egiten da. Udal Euskaltegiaren funtzionamenduaren jarraipena ere egiten da.

### ENBA:

- Batzordeburua, PSE-EEko zinegotzia
- PSE-EEko zinegotzi bat.
- EH Bilduko zinegotzi bat
- EAJko zinegotzi bat
- Irabaziko zinegotzi bat/ Elkarrekin Eibar/Podemos
- Langileen batzordearen ordezkaria
- Langileria eta Antolamendu saileko arduraduna
- Hizkuntza normalizatzailea
- Idazkaria, Euskara Arloko Zuzendaria

Bilera hilean behin egiten da. Barne Erabilera planaren jarraipena egiten da.



**EPEA:** 2021

**GASTUA:** Barne baliabideak eta zinegotzien dietak

### BALORAZIOA:

**Euskara Batzordea:** 9 batzorde egin dira, 59 gai landu dira.

**ENBA:** 6 batzorde egin dira, 33 gai landu dira.



## EUSKARA ARLOAREN ANTOLAKETA

**DESKRIBAPENA:** Euskara Arloa bi zerbitzutan banatuta dago: Euskara Zerbitzua eta Udal Euskaltegia. Guztira 11 lagun daude.



**EPEA:** 2021

**GASTUA:** 712.731,26 €

**BALORAZIOA:**

Ohiko plantilaz gain, Udal Euskaltegirako 4 irakasle gehiago kontratatu behar izan dira aldi baterako.

## EUSKARA ARLOAREN AURREKONTUA

**DESKRIBAPENA:** Euskara Arloa bi zerbitzutan banatuta dago: Euskara Zerbitzua eta Udal Euskaltegia. Guztira 11 lagun daude.



**EPEA:** 2021


**GASTUA:**

	DIRU-SARRERAK	GASTUAK
<b>EUSKARA ARLOA</b>	<b>318.925,97 €</b>	<b>995.816,26€</b>
Euskara Zerbitzua	3.765,00 €	409.197,99 €
Euskaltegia	315.160,97 €	586.618,27 €

## KALITATEA HOBETZEKO TRESNAK

**DESKRIBAPENA:** Euskara Arloa (Udal Euskaltegia eta Euskara Zerbitzua) etengabe ari da kalitatea hobetzen, horretarako hainbat lan egin ditu urtean zehar:

- **Langileen etengabeko formazioa:** eguneratzeko eta udaleko gainerako zerbitzuei, herritarrei eta euskaltegiko ikasleei zerbitzu ona eman ahal izateko.
- **Lankidetzak:** Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika sailburuordetzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundian Udalekin egitasmoaren barruan lankidetzan jarduten da.
- **Euskaltegian Curriculuma:** HABEren aginduari jarraituz Euskaltegiak curriculum berria diseinatu du eta ondoren HABEren oniritzia jaso du. Hala ere, hori hobetzen jarraituko du.
- **Zerbitzuen Karta:** Euskara Zerbitzuak eta Udal Euskaltegiak 2018tik zerbitzuen kartak egin dituzte. Horietan eskaintzen diren zerbitzuen berri ematen die herritarrei. Gainera, zerbitzu horiek aurrera eramateko konpromiso batzuk hartu dira kalitatea oinarri direla. Konpromiso horien betetze-maila, aldiro-aldiro neurtuko da eta neurri zuzentzaileak hartuko dira.



EPEA: 2021



# BARNE NORMALIZAZIOA

## KUDEAKETA-PLANA

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalean euskararen erabilera normalizatzeko planari dagokion 2021eko kudeaketa-plana.

plana	helburua	neurria
Jendaurreko ekintzak	Jendaurreko ekintzen publikoetan erabilera areagotzea	Protokoloa beteazko akentzak bilatu eta beteazko modua aztertu
Ekitaldi informatiboak	Euskarazko bertsioen erabilera areagotzea	Euskarazko bertsioen erabilera sustatu
Hizkuntza politikaren zehaztea	Hizkuntza politikaren zehaztea	Dekretua landu, aplikatu eta ezarri
Udaleko kudeaketa arazoak	Udaleko kudeaketa arazoak	Dekretuaren jarraitzea

**EPEA:** 2021

**GASTUA:** Barne baliabideak

### BALORAZIOA:


Zerbitzuez gain, zenbait arlotan helburu izar batzuk identifikatu genituen. 6 helburutatik 3 bete ditugu (Dekretua landu eta aztertu dugu Udalekin lan taldean; dekretua azaldu dugu sailetan, eta sailetako mikroplanak egin ditugu); beste 3retan aritu gara lanean, baina ez ditugu aurreikusitako ekintza guztiak egin (Jendaurreko protokolo berrirako proposamena landu dugu, tresna informatikoak langile berriei instalatzeko eskaera fitxa egokitu dugu, kontratu txikietan hizkuntza irizpideak egokitu eta berritu ditugu).

Horiez gain, beste 3 arlotan identifikatuta genituen zenbat ekintza, baina ez dira egin zenbait arrazoi tarteko. HAPOari Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egin behar diogu, baina oraindik prozesua ez da ebaluazioa egiteko unera iritsi. Kirol patronatuko plana egiteko zenbait ekintza aurreikusi genituen, baina ez dugu lortu haiekin elkartu eta aurrera egitea. Udaleko lanpostuen hizkuntza eskakizunen azterketa globala egiteko dago, baina aurrean ez da lanpostuen balorazioa egin.



## SAILETAKO PLANAK

**DESKRIBAPENA:** Sailez sail euskara plantxoak edo mikroplanak egin eta horietan jarritako helburuak lortzeko ekintzak zehaztu.



**EPEA:** 2021

**GASTUA:** Barne baliabideak


### **BALORAZIOA:**

15 sailek egin dituzte mikroplanak Euskara Zerbitzutik proposatutako helburu/ekintza zerrenda bat erabilita. Zerrenda osatzeko abiapuntua izan da 2020ko abenduan VI. Plangintzaldiaren tarteko ebaluazio egiteko langileek betetako galdetegia. Galdetegian lan-hizkuntzan jarri zen fokoa, eta horregatik mikroplanetako ekintzek lanean euskararen erabilera handitzea zuten helburu. Arlo hauetako helburuak identifikatu ziren: lanari lotutako errotulazioari dagokionez, artxiboen eta dokumentuen izenak; langileen arteko ahozko erabilera eta saileko bilerak; udal erregistroko laburpen edo estraktuak; barruko komunikazio idatzia eta txostenak; eta baliabide informatikoetan euskarazko bertsioen erabilera.

Ekintzak betetze bidean jartzen laguntzeko eta jarraipena egiteko asistentzia eskaini zaien sailei eta sail gehienekin 3 bilera egin dira irailetik abendura bitartean.

## DEKRETUA LANDU ETA APLIKAGARRI EGIN

**DESKRIBAPENA:** Udalekin lan-taldean 179/2019 Dekretua lantzen ari gara, nola aplikatu aztertzeko.



**EPEA:** 2021

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:**

Aurtengo urtean ere Dekretua lantzen jarraitu dugu.

Alde batetik, IVA-Pek antolatutako ikastaro batean parte hartu dugu. Ikastaro emaitza Iñigo Urrutia legelaria izan da.

Bestetik, **Udalekin** Gipuzkoako udaletako euskara teknikarien lan taldean hartu dugu parte. Galdetegi bat prestatu dugu bi helburu nagusirekin: legea betetzen ari garen ikustea eta legeak eskaintzen dizkigun aukerak baliatzen ditugun ikustea.

Galdetegia prestatzeko hainbat bilera egin ditugu, gehienak on line. 61 udalerrik erantzun diote galdetegiari eta haren hustuketaren berri emateko mintegia izan da aurrez aurre. Galdetegiaren emaitzetatik atera beharko ditugu orain dekretua betetzeko landu beharko ditugun arloak. 2022ko ekintza plana osatuko dugu horrela

## LANKIDETZA BESTE ERAKUNDE BATZUEKIN

**DESKRIBAPENA:** Erabilera plana gauzatzeko ezinbestekoak dira beste erakunde batzuekin ditugun harremanak, esperientziak partekatzeo, besteen praktikak ezagutzeko eta zenbat gai elkarrekin lantzeko.



**EPEA:** 2021

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** HPSrekin lankidetzan aritu gara praktika onak identifikatzeko eta formazio premiak identifikatzeko galdetegiak betetzen, plangintzaldiaren tarteko ebaluazioa egiten...

Beste erakunde batzuekin ere izan ditugu lan harremanak.

Udalekin Gipuzkoako udaletako Euskara zerbitzuen taldean parte hartu dugu Dekretua aztertzeko lanetan eta zinegotziekin egindako saioen prestaketan, besteak beste.

Kontseiluak proposatuta, alkateak parte hartu du Udalak hizkuntza-politikan eragile jardunaldian, non, beste udal batzuetako ordezkariekin batera, azaldu ditu gure udalean abian jarritako praktikak eta hartutako neurriak euskararen erabilera sustatzeko helburuarekin.

Parte hartu dugu, halaber, Bikain euskararen erabilera eta kudeaketa ziurtagiria eskatu duten beste erakunde batzuekin ebaluatzen.



## UDAL KIROL PATRONATUA

**DESKRIBAPENA:** Kirol patronatuko langileei udalaren hizkuntza irizpideen berri eman eta euskararen erabilera areagotzeko irizpideak bete ditzaten sentsibilizatu.



**EPEA:** 2021

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Bilera bat egin dugu kiroldegiko arduradunarekin eta baita langile batzuekin. Dekretuaren berri eman zaie eta hizkuntza betebeharrak gogorarazi zaizkie. Gainbegiratu da lehendik eginda zegoen mikroplana eta helburu batzuk ezarri dira: kontratuetako irizpideak zehaztu, web orrian antzemandako akatsak zuzendu, monitoreentzako sentsibilizazio saioak antolatu...

Webguneko akats batzuk konpondu dira eta beste hainbat testuren zuzenketa egin da, baina ez dugu lortu beste bilerarik egitea, ez eta sentsibilizazio saioetarako datak adostea.

## BRIGADA

- **DESKRIBAPENA:** Brigadako langileen artean euskararen erabilera sustatzeko ekimenak proposatu eta abian jartzea.



**EPEA:** 2021

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Harremanetan izan gara mantenimenduko lan taldeko arduradunekin eta zenbait ekimen proposatu dizkiegu: trebakuntza, euskararen txokoa, langile berriei hizkuntza harrera egitea.

Biltegia berrantolatzen ari dira eta lan handia egin dute gunee eta tresnak errotulatzeko: euskara hutsean edo ele bietan jartzen. Espazio bat egokitu dute euskarari buruzko gomendioak eta jartzeko eta pendiente gelditu da trebakuntza saioak antolatzea.

## LAN-MAHAIA

**DESKRIBAPENA:** Udal-sailtako ordezkariak osatutako mahai teknikoa da. Helburua: Euskara planaren garapenaren jarraipena egitea sailka; hartu beharreko neurriak proposatzea, lehentasunak zehaztea, eta aurrera eramango diren normalizazio-ekintzak adostea, ENBARI proposatzeko



**EPEA:** 2021

**GASTUA:** Barne-baliabideak

**BALORAZIOA:** Hauek dira mahaiaren partaidea duten sailak: Obrak, Liburutegia, Pertsonala eta Antolamendua, Udaltzaingoa, Gizartekintza, Hirigintza, Kontuhartzailtza, Kultura, Alkatetza, Zerbitzuak, Euskaltegia eta euskara, Brigada eta Musika eskola. Aurten beste bi zerbitzuek ere gehitu dira mahaira: Diruzaintza eta Idazkaritza.

Hiru batzar egin dira urtean zehar, eta asistentzia % 55ekoa izan da.

Aurten, hauek izan dira gaiak: dekretu berria eta hizkuntza irizpideak, sailtako mikroplanak eta Euskararen eguna.

## KOMUNIKAZIOAK SAILETAN

**DESKRIBAPENA:** Batzarrak egin dira sailetako langileekin edo horien ordezkariekin Dekretu berriaren eta hari egokitutako udal irizpideen berri emateko.



**EPEA:** 2021

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** 2020an hasiera eman genien komunikazio hauei eta 2021ean falta zitzaizkigun sailekin jarraitu dugu. Honako sail hauetako langile eta teknikariek izan gara: Hirigintza, Kiroldedia, Kontuhartzailtza, Diruzaintza, Idazkaritza, Atezaintza, Obrak, langileria eta antolaketa eta Udaltzaingoa.

Gainera, bi saio antolatu ditugu zinegotziei indarrean dagoen dekretuaren berri emateko eta hizkuntzak erabiltzeko udal irizpideak azaltzeko. Guztira 75 lagun inguruk jaso dituzte azalpenak.

## JENDAURREKO EKITALDIAK

**DESKRIBAPENA:** Jarduera publikoetan euskararen erabilera areagotzeko aliantzak bilatu dira eta jendaurreko ekitaldietarako protokoloa betetzeko modua aztertu da.



**EPEA:** 2021

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Komunikazio lan taldearekin elkarlanean aztertu dugu duela urte batzuk egindako jendaurrekoetarako protokoloa. Beste erakunde batzuen irizpideak ikusi ditugu eta Dekretuak dioena betetzeko egin beharreko aldaketak identifikatu dira. Horiek kontuan hartuta, protokolo proposamena egin da, oraindik oniritzia jaso ez duena. Behin oniritzia emanda eta alkatearen ebazpena eginda komunikatu beharko zaie interesdun guztiei.

## LANPOSTUEI HIZKUNTZA ESKAKIZUNA JARRI

**DESKRIBAPENA:** Udaleko lanpostuei, brigadakoei izan ezik, egiteko eta funtzioen araberako hizkuntza eskakizuna ezarri behar zaie. Horretarako protokolo bat dago onartua.

Ikusi **HEMEN** protokoloa.



**EPEA:** 2021

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:**

2021ean 7 lanposturi ezarri zaie Hizkuntza Eskakizuna, eta 2 lanposturi HE aldatu zaie.

## LANGILEEN ESKOLARATZEA

- **DESKRIBAPENA:** udaletxeko langileek eta fundazio eta patronatoetakoek euskalduntze ikastaroak IVAPen edo udalaren kontura egiteko aukera izaten dute. Horretarako ENBAn onartutako araudia bete behar da.



**EPEA:** 2020-2021 ikasturtea

**GASTUA:** Barne baliabideak


**BALORAZIOA:**

2020-2021 ikasturtean 3 langile matrikulatu dira: 2 langile IVAPen kontura, eta langile bat Udalaren kontura.

Ikasle horien jarraipena egin da, eta orokorrean, langileen jarrera/aprobetxamendua ona izan da.

## HE AKREDITAZIO PROBAK

**DESKRIBAPENA:** udaletxeko eta fundazio eta patronatoetako langileak IVAPek egiten dituen hizkuntza probetara joateko tramitazioa egiten da urtean bi deialditan.



**EPEA:** 2021

**GASTUA:** Barne baliabideak

### **BALORAZIOA:**

2021eko lehenengo deialdia:

Lehenengo deialdian izena emandakoak 12 dira. Horietatik 9 langile aurkeztu dira emaitzak honako hauek dira:

- GAI: 1
- EZ GAI: 8

2021eko bigarren deialdia:


11 eskaera bidali dira IVAPera. Horietatik 8 langile aurkeztu dira eta emaitzak honako hauek izan dira:

- GAI: 1
- EZ GAI: 7



## LANGILEEN HARRERA

**DESKRIBAPENA:** Langile berri bat udalerako lanean hasten denean, Hizkuntzak erabiltzeko udal irizpideak liburuxka ematen zaio eta azaldu egiten zaio zeintzuk diren udalean lanean diharduen bitartean hizkuntzari dagokionean izan behar duen jokabidea.



**EPEA:** 2021

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Aurreko urteotan bezala, harrera egin zaie langile hasi berriei: euskara planaren berri eman, eta udal irizpideak banatu eta azaldu zaizkie.

Guztira, 25 langile berrirekin hitz egin dugu eta horrez agin Neguko dispositibora bisita egin dugu eta bertako langileekin egon gara.

## ZUZENKETA-AHOLKULARITZA

**DESKRIBAPENA:** Udal-sailtako langileei testuak euskaraz sortzen laguntzen diegu, haiek idatzitakoak zuzentzen ditugu eta euskaraz lan egiteko lagungarriak diren baliabideen berri ematen diegu.



**EPEA:** 2021

**GASTUA:** Barne baliabideak

### **BALORAZIOA:**

#### Zuzenketa zerbitzua

Testuak zuzendu edo itzultzen laguntzeko egindako eskaerak 307 izan dira; 35 kanpokoak eta gainerakoak barruko langileenak.

Gutxitu egin dira barruko langileek eskatutako zuzenketak, baina zuzendutako hitz kopuruari begiratu gero, aurten gehiago izan dira; izan ere testu luze gehiago izan dira. Kanpokoak, aldiz, ugaritu egin dira. Kanpoko bi eskatzaile izan dira, baina batak egin ditu eskera gehienak.

- Zuzenketak: % 92
- Itzulpenak: % 5
- Zalantzak argitzeko egindako eskaerak: % 2
- 16 sail ezberdinetako testuak gainbegiratu dira.

#### Aholkularitza eta euskaraz lan egiteko baliabideen gainerako informazioa

e-mail bitartez edo Intranetean jarrita eskuratu zaie langileei astelehenetako Jantzi euskaraz di-da batean izeneko postak: hizkuntzaren gainerako zalantzak, ohiko akatsak, ariketa errazak, Interneten aurki daitezkeenak, euskarazko ekitaldien agenda...

Horiez gain, euskaltegian antolatzen diren ikastaro eta bestelako ekitaldien gainerako informazioa eta hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko deialdien ingurukoak ere jakinarazi zaizkie langileei.

## TREBAKUNTZA SAIOAK

**DESKRIBAPENA:** Euskara maila hobetzeko saioak egiten dira langile eta ordezkari politikoekin, laneko jardunean euskara gehiago egiteko helburuarekin.



**EPEA:** 2021

**GASTUA:** Barne baliabideak

### **BALORAZIOA:**

- Udaltzainak

4 txanda arduradunek ordubeteko 15 saio hartu dituzte urtarriletik ekainera, taldeka. Saioen helburua lanean euskararen erabilera sustatzea izan da, batez ere. Betiere ahaztu gabe zerbitzu hizkuntza. Honetan trebatu dira: lanarekin lotutako hiztegia ikasi eta erabiltzen, eguneroko batzar laburrak edo brifinak euskaraz egiten, telefono edo irrati bidez agenteek haien artean izaten dituzten harremanetan euskara gehiago erabiltzen.

- Ordezkari politikoak

2 zinegotzik izan dituzte eskolak, bakarka. Batak urte osoan zehar astean bi saio (ordubete inguruko 50 saio); besteak bi hilabetez (ordubeteko 5 saio). Haien mailari egokitutako helburua izan dute saioek. Baten kasuan, helburua izan dira jariora hobetzea, ulermena handitzea eta euskalkira hurbiltzea. Bestearen kasuan, eskuartearen izaten dituen gaietan euskaraz jarduteko ohitura hartzea, batez ere, jendaurrean egiteko orduan erosoago sentitzeko.

- Sindikatu bateko ordezkariak

2 ordezkari saioak hartu dituzte uztailean hasi eta urte amaiera bitartean (ordubeteko 25 saio). Haien lanpostuak betetzeko eskatzen zaien HE eduki arren, ez erabiltzeak ekarri dien gaitasun galera frenatzeko eta haien artean euskaraz egiten ohitzeko helburuz eskatu dituzte saioak.



## EUSKARAREN EGUNA UDALETXEAN

**DESKRIBAPENA:** Euskararen eguna aitzakia hartuta, langileak sentsibilizatzeko eta euskara gehiago erabiltzeko ekintzak egiten ditugu.



**EPEA:** 2021

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** *Nola esaten da Eibarren* izeneko lehiaketa antolatu dugu. Abenduaren 3aren aurreko egunetan hasita, egunean 10 hitzen definizioak jaso dituzte langileek posta elektronikoz, eta udaletxean eta sailetako ohar tauletan jarritako hitz saldan aurkitu behar zituzten definitutako hitzak. Eibarko euskara webgunera ere bideratu ditugu langileak, han kontsultatu baitaiteke Eibarko hiztegia.

Lehiaketan parte hartzeko, definizioekin bat zetozen hitzak bidali behar zituzten partehartzaileek.

Parte hartzea ez da handia izan, 21 lagunek baino ez dute parte hartu.

Erantzun guztiak zuzen eman dituztenen artean sariak banatu dira: liburuak eta Coliseoko ekitaldietarako gonbidapenak.

## JANTZI EUSKARAZ di-da batean!

**DESKRIBAPENA:** Astero e-mailez edo intranet bidez hizkuntzaren gaineko azalpen motzak ematen zaizkie langileei: maiz egiten diren akatsen gaineko oharrak, hiztegia, Interneten dauden baliabideak...



**EPEA:** 2021

**GASTUA:** Barne baliabideak


**BALORAZIOA:** Urteko 33 astelehenetan iritsi zaizkie langileei euskararen inguruko mezuak posta elektronikoz edo intranetean jarrita.

Azalpen asko gaizki erabiltzen ditugun edo arazotsuak izaten diren euskarazko egituren ingurukoak izan dira. Beste batzuek lexiko kontuak azaldu dituzte, ortografia eta puntuazio egokiari buruzko argibideak eta testu mota jakin batzuk egoki sortzeko aholkuak. Zenbaitetan ariketak egitea ere proposatu zaie, eta kontsultak egiteko Interneten eskuragarri dauden baliabideak ere aurkeztu zaizkie.



## BALIABIDE INFORMATIKOAK

- **DESKRIBAPENA:** Baliabide eta tresna informatikoen euskarazko bertsioen erabilera handitzera bideratutako ekintzak egitea da helburua.



**EPEA:** 2021

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Informatika eta Antolaketa sailekin lankidetzan, langile berrientzako ekipoen eskaeran HE sartu da. Horren arabera bete behar da erakundearen hizkuntza irizpideetan jasotakoa.

Ez da beti betetzen. Zailtasunak identifikatu beharko dira eta erabilera sustatu.

## KEXAK ETA INTZIDENTZIAK

**DESKRIBAPENA:** Herritarrek eta udalaren zerbitzuen hartzaileek egindako kexa eta gertatutako intzidentziei jarraipena egiten diegu.



**EPEA:** 2021

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Herritarren hizkuntza eskubideak urratzeagatik jarri dira kexa guztiak. 6 intzidentzia jaso dira.

5 intzidentzia Udaleko langileek herritarrari zerbitzua ematean gertatu dira. Eta intzidentzia 1 Udalak emandako dirulaguntzekin lotura duena izan da.

Intzidentzia 1 Euskara Zerbitzuan jaso da: udalaren dirulaguntza jasotzen duen kirol bati buruzkoa.


4 intzidentzia Astindu eibar hizkuntza eskubideen ataritik jaso dira: guztiak udaltzainek herritarrei gaztelaniaz egin dietelako izan dira, herritarra beraiengana euskaraz zuzendu denean.

Intzidentzia 1 Behatokitik jaso da: hau ere udaltzain batek herritarrari azalpen guztiak gaztelaniaz eman dizkiolako izan da, herritarrak berari euskaraz egin ondoren.



## KONTRATUEN JARRAIPENA

**DESKRIBAPENA:** Udalak egiten dituen kontratuetan jartzen diren hizkuntza-irizpideen betetzearen jarraipena egiten da, kontratuaren arduradunari galdetuta jarritako irizpideen betatze-mailaren inguruan.



**EPEA:** 2021

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** 47 kontratu formalizatu dira aurten:

- Zerbitzu kontratuak 26 (horietako 2 Kontratuzaizen, aurreko urteko beste batzuekin batera)
- Obra kontratuak: 7
- Hornidura kontratuak: 11
- Emakidak edo beste batzuk: 2 formalizatu dira (beste batzuk hutsik edo desestimatuta gelditu dira)

Kontratuetako baldintza orriak ele bietan argitaratu dira eta gehienetan jarri dira hizkuntza baldintzak, batez ere herritarrekin harremana izatea eskatzen duten zerbitzuak kontratatzen direnean.

Kontratu batzuetako baldintza pleguetan hizkuntza irizpide egokirik ez direla jarri ikusi da. Gabeziarik edo desegokitasunik handienak gertatzen dira udalarekiko harremani dagokienez; izan ere, batzuetan ez da horren gaineko irizpiderik jartzen edo oso orokorrak eta interpretaziorako aukera zabalegia ematen dutenak izaten dira. Horrek gerora erreklamazioak egiteko atea ixten du. Beraz, gaia aztertu beharko da, hausnarketa egin eta hizkuntza irizpide egokiak jartzeko bidea egin.

Kontratuzaizen aplikazioan zerbitzua ematean herritarrekin harremana izatea eskatzen zuten kontratuak baino ez dira sartu; guztiak zerbitzu kontratuak dira. Jarraitu diren kontratuetako batzuk aurreko urtean formalizatutakoak dira.

4 kontraturen neurketa egin da. Erabilera irizpideen betetze-mailaren batezbestekoa % 55 ingurukoa da. Batezbesteko maila 2,89 (1etik 5erako eskalan, 1 dena gaztelaniaz eta 5 dena euskaraz da). Betetze maila handia da zerbitzu-hizkuntzari dagozkion adierazleetan (hizkuntza paisaia, irudi korporatiboa eta kanpo harremanetan); enpresaren eta udalaren arteko harremanetan, aldiz, euskararen erabilera oso txikia da.

9 lanposturi egin zaie jarraipena eta guztietan bete da eskatutako maila.





## KONTRATU TXIKIEN JARRAIPENA

- **DESKRIBAPENA:** Udalak egiten dituen kontratu txikietan jartzen diren hizkuntza-irizpideak zaintzea.



**EPEA:** 2021

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Kontratu moten araberako hizkuntza irizpideak txertatu dira kontratu txikiak kudeatzeko tresnan. Besteak beste, sartu dira jarduera zein hizkuntzatan egin nahi den, kontratatutako enpresak Eibarko udalarekin ahal dela harremanak euskaraz izango dituela eta fakturak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztu behar dituela.

## DIRULAGUNTZEN JARRAIPENA

**DESKRIBAPENA:** Udalak ematen dituen dirulaguntzetan hizkuntza-irizpideak jartzen diren jarraitzen dugu.



**EPEA:** 2021

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** 77 dirulaguntza begiratu dira: izendunak 53, 19 ebaluazio bakoiztu bidez emandakoak, eta 5 norgehiagoka araubidez.

Guztiak ele bietan argitaratu dira.

Hizkuntza-baldintzak jarri dira dirulaguntza izendun guztietan eta norgehiagoka araubidez emandako 5 dirulaguntzetatik 4tan. Ebaluazio bakoiztu bidez kirol elkarteei ohiko jarduerak antolatzeko laguntzetan jarri dira; gainerakoen ez. Bestalde, Eibarko establezimenduetako errotuluak eta irudi korporatiboa euskaraz jartzeko laguntza ere eman da eta baita UEUko ikastaroak egiteko ere.

Izendunetako jarduketa txostenean aurreko urtean gehitutako atalaren jarraipena egiteko lagin bat atera eta hiru dirulaguntzetan nola bete diren hizkuntza betekizunak begiratu da. Ondorioa da zenbait elkartetan antolatzen dituzten jardueren zabalkundea egiten duten kideen artean batzuetan ez dagoela euskaraz dakien inor. Hori dela eta, komenigarria litzateke elkarteei hizkuntza irizpideak betetzeko laguntza eskaintzea eta baliabideak (itzultzaile neuronalak) erakustea.

## ORDENANTZAREN JARRAIPENA

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak Euskararen Ordenantza du indarrean 2016ko ekainetik. Ordenantza horren betetze-mailaren jarraipena egiten da ENBA eta Euskara Batzordean. ENBAn udal barruko eta erakunde autonomoei dagokiena eta Euskara Batzordean udalerriko neurriei dagokiena

EUSKARAREN  
ORDENANTZA



**EPEA:** 2021

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Euskararen Ordenantzan jasotako arauak betetzeko barne zein kanpo erabilera sustatzera eta bermatzera zuzendutako ekintzen eta egitasmoen gaineko jarraipena egin da, eta 2021eko memorian jaso da.



# EUSKARAREN SUSTAPENERAKO EKINTZA PLANA

## ZORIONAK DIPTIKOIA

**DESKRIBAPENA:** Eibarren umeak erregistratzen dituzten familiei Pegoran "Zorionak" diptikoa banatzen zaie. Bertan eredu linguistiko desberdineko gurasoei aholkuak ematen zaizkie umeekin eduki behar duten jarrerari buruzkoak.



**EPEA:** 2021


**GASTUA:** 2016ko aurrekontukoa 907,50€ (3.000 ale)

**BALORAZIOA:**

2021. urtean 196 ume jaio dira

## EUSKARAZKO PRODUKTUEN KATALOGOA

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak Eibarko ikastetxeetan San Andres inguruan Euskarazko produktuaren katalogoa banatzen du. Katalogo hau Euskal Herri osorako egiten da eta Eibarko udalak ale batzuk erosten ditu.



**EPEA:** 2021eko azaroa

**GASTUA:** 2.740,65 €


**BALORAZIOA:**

2.800 katalogo banatu dira Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan eta 1.700 liburu bereizgarri DBHko ikastetxeen bitartez.

## HAZI HEZI ALDIZKARIAREN BANAKETA

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak 2 urteko umeen geletako gurasoei Hazi Hezi aldizkariaren urtebeteko harpidetza oparitan jasotzeko aukera ematen die. Interesatuek izena eman behar dute.

Horretaz gain, ume jaioberria erregistratzera doazen familiek Hazi Hezi 0 alea doan jasotzen dute.



**EPEA:** 2021

**GASTUA:** 840€ harpidetza eta Pegoran 0 alea banatzea doan izan da

### **BALORAZIOA:**

57 gurasok eman dute izena urtebeterako harpidetza doan jasotzeko. Iaz baino guraso gehiagok:

- 1 Aldatzekoak
- 12 San Andresekoak
- 18 La Sallekoak
- 22 Moglelekoak
- 4 Arrateko Andra Mari

eta Pegoran 196 familiari banatu zaie 0 alea

## INFOGRAFIA *FAMILIA HIZKUNTZA UME ELEANITZAK*

**DESKRIBAPENA:** Ume eleanitzen gurasoentzako eskuliburua infografia bilakatua. Paperean dagoen informazio garrantzitsua infografia bidez (animazio bideoa) ematea da helburua.

Infografia hori ikastetxeek gurasoekin egiten dituzten bilera orokorretan erabili ahal izango dute, udalaren web gunean eta ikastetxeen web eta blogetan egon daiteke ikusgai.

Whatsapp bidez banatzeko bertsio arina ere badago.

<https://www.eibar.eus/eu/bideoak/euskaratik-eleaniztasunera-infografia>



**EPEA:** 2021eko iraila-urria

**GASTUA:** 7.151,71€ 2019an egindakoa

### **BALORAZIOA:**

Ikastetxeek gustura hartu dute multimedia materiala. Bideo honen bidez gurasoek 5'an funtsezkoa den informazioa jaso ahal dute. Liburuxkaren formatoak lan handiagoa eskatzen zien irakasleei eta baita familiei ere.

Whatsapp bidez erraz banatzeko bertsioa ere egin eta zabaldu da.



## HH ETA LHKO IKASTETXEEKIN LANKIDETZA BILERAK

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udaleko Euskara sailaren eta HH eta LHko ikastetxeen artean egiten diren bilerak, lankidetzan hainbat egitasmo proposatzeko, sustatzeko, ebaluatzeko. Guztira 7 ikastetxe daude eta denak dira mahaiko kide.



**EPEA:** 2021

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:**

Aurreikusitako bilerak egin dira. Asistentzia % 100ekoa izan da.

<b>Data</b>	<b>Asistentzia</b>
2021/01/12	7 ikastetxe
2021/05/18	7 ikastetxe
2021/10/19	7 ikastetxe

## DBH ETA BATXILERGOKO IKASTETXEEKIN LANKIDETZA BILERAK

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udaleko Euskara sailaren eta DBH eta Batxilergoko ikastetxeen artean egiten diren bilerak, lankidetzan hainbat egitasmo proposatzeko, sustatzeko, ebaluatzeko. Guztira 3 ikastetxe daude, eta denak dira mahaiko kide. Ikastetxe publiko bakarra dago 3 egoitzatan banatua, eta 2 kontzertatu.



**EPEA:** 2021

**GASTUA:** Barne baliabideak

### **BALORAZIOA:**

Aurreikusitako bilerak egin dira. Asistentzia % 100ekoa izan da.

<b>Data</b>	<b>Asistentzia</b>
2021/01/20	3 ikastetxe
2021/05/19	3 ikastetxe
2021/09/15	3 ikastetxe

## GU ERE BERTSOTAN

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen bidez ikastetxe guztietan eskaintzen duen bertsolaritza eta ahozkotasuna lantzeko egitasmoa. Udalak eta ikastetxeek finantzatua. Ikastetxe gehienetan LH5 eta 6 mailetan burutzen da. Egitasmoak ikasturte osoa hartzen du, urrian hasi eta maiatzaren amaieran bukatzen da. Bertsolaritza lantzeko saioa astero izaten dute eskola orduetan, aste batean bertsozale elkarteko irakaslea joaten da gelara eta hurrengo astean tutorearekin lantzen dute.



**EPEA:** 2020-2021 ikasturtea

**GASTUA:** 10.343 €

**BALORAZIOA:** Eibarko Lehen Hezkuntzako 5 ikastetxek hartu dute parte. 2 ikastetxek COVID kontuak direla eta egitasmotik kanpo geratzea erabaki dute. Egitasmoa 16 ikastaldetan burutu da. 300 ume inguruk landu dute bertsolaritza. Umeek bertsolaritzaren bitartez umore eta jolas giroan bertsoaren bitartez euskara eta ahozkotasuna lantzen dute. Bertsozale elkarteko irakasleak oso profesionalak dira eta umeekin duten harremana oso egokia da. Covid-19a dela-eta ez da egon Umeen bertso jaialdirik Coliseoan. Ikusi MEMORIA.

## EUSKARA ZINE ARETOETARA 2020-2021

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak ikastetxeei euskarazko zine eskaintza egiten die eskola orduetan. Eskaintza hori TINKO euskara elkartearen bitartez. Udala eta ikastetxeen artean finantzatzen da. Filmak Coliseoan edo Portalean ematen dira 14:45-16:30 bitartean.



**EPEA:** 2020-2021 ikasturtea

**GASTUA:** 2.139,50 €

**BALORAZIOA:** TINKOk 9 filma eman ditu. Filme batzuk Coliseoan eman dira eta beste batzuk ikastetxean bertan COVID-19 dela eta.. 1.945 ikusle izan dira. Ikastetxeka honako hau izan da filmen eskaera:

**IKASTETXEAK LH:**

- San Andres 4 filma
- Amaña 3 filma
- Urkizu 4 filma
- La Salle Isasi 5 filma
- Arrateko Andra Mari filma 1

**IKASTETXEAK DBH**

- Eibar BHI 2 filma
- La Salle Azitain 2 filma

## ONGI ETORRI EUSKARARA

**DESKRIBAPENA:** Eibarrera bizitzera etorritako atzerritarren seme-alabei euskarazko errefortzu saioak ematen zaizkie. Udalak finantzatzen du. Ordu eta laurdeneko bi saio izaten dira asteen, Indianokua gaztelekuan, eta taldea osatuz gero ikastetxean bertan. Ikasturte honetan ere ikastetxean bertan taldeak osatzea bultzatu da. Eibar BHIIn hauspoa egitasmoaren barruan eskaini da.



**EPEA:** 2020-2021 ikasturtea

**GASTUA:** 11.041 €

**BALORAZIOA:** Guztira 5 errefortzu talde osatu dira:

3 talde Eibar BHI Isasin, talde bat Eibar BHI Jardinetan eta Gaztelekuan beste talde bat, Aldatzeko eta La Salleko ikasleez osatua.

Guztira 54 ikaslek eman dute izena, eta 5 taldetan antolatuta jardun dute.

## LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXEEKIN LANKIDETZA BILERAK

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udala Lanbide Heziketako ikastetxeekin (Armeria Eskola eta UNI) eta ...eta kितto! Euskara Elkartea ere lankide delarik bilerak egiten dira elkarrekin Lanbide heziketan euskararen erabilera sustatzeko.



**EPEA:** 2021

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Aurreikusitako bilerak egin dira. Asistentzia % 100ekoa izan da.

Datak: 2021/02/02, 2021/04/20 eta 2021/09/14



## TXIKITASUNEAN HAUNDI MOTIBAZIO SAIOAK DBH1

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak DBH 1eko Ikastalde guztiei motibazio saioak eskaintzen dizkie. Eskolan bertan eskola orduetan izaten da, Udalak finantzatzen du, eta Eta Kitto euskara elkarteak eskaintzen ditu. Helburua euskaraz egitera animatzea da. Tailerra ordu eta erdiko bi saioak osatzen dute.



**EPEA:** 2021eko urria-abendua

**GASTUA:** 2.135,00 €

**BALORAZIOA:** 350 ikaslek jaso dituzte motibazio saio hauek. Eibarko DBH1 maila duten ikastetxe guztietako ikasleek hartu dute parte. Guztira 13 taldetan eman dira saioak. Orohar ikasleek saioari buruz egin duten balorazioa ona da. Balorazio guztiak taldeka HEMEN daude.

## MOTIBAZIO SAIOAK LANBIDE HEZIKETA

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak Lanbide Heziketako A eta D ereduko ikastaldeei motibazio saioak eskaintzen dizkie. Eskolan bertan eskola orduetan izaten da, Udalak finantzatzen du. Helburua da euskara ikastera animatzea da eta dakitenak erabiltzera animatzea.



**EPEA:** 2021eko iraila-urria

**GASTUA:** 3.914,00 €

**BALORAZIOA:** Lanbide Heziketako Armeria Eskolako 13 taldek eta UNiko 9 taldek jaso dute. Balorazioa orohar ona izan da. Eta interesa adierazi duten ikasleek euskaltegiara jo dute euskara ikastera. Balorazio eranskina.



## D EREDUA LANBIDE HEZIKETAN

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak Lanbide Heziketako Ameria Eskola eta UNI Eibar-Ermua ikastetxeekin lankidetzan dihardu LHn D ereduia sustatzeko.

**Lana topatzeko aukera handiagoa**  
Mayor empleabilidad

**Abantaila akademikoak**  
Ventajas académicas

**B1|B2**

**+B1|B2**

**Animatu zaitetz!**



**EPEA:** 2021eko otsaila-iraila

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** 2021ean honako ekintzak burutu dira:

- Alkatearen gutuna D ereduia gomendatuz Lanbide Heziketako ikaslelaiei eta euren familiei.
- D ereduaren aldeko diptikoa atera da ikastetxeen Ate Irekien egunetan banatzeko eta ikaslelaiei bidaltzeko
- Pentsaurrekoa egin da maiatzaren 6an
- ...eta Kitto!-ko aste horretako alean gaiarekin lotutako elkarrizketak egin dira.



## ULER-SAIOAK DEBABARRENA INTEGRA / BAT EGINEZ

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak Soziolingistika Klusterra EHUrekin lankidetzan lantzen diharduen ikerketan parte hartu du Uler-saioak metodologia probatzeko. Armeria Eskola elkarteak bideratzen duen “Debabarrena Integra Bat eginez” egitasmoan txertatu da “uler-saioak” modulua.



**EPEA:** 2021eko urria 2022ko otsaila

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Udaleko euskara Zerbitzuaren eta Armeria Elkartearen arteko lankidetzan oso ona izan da. “Uler-saioak” euskara saioetan 8 ikaslek hartu dute parte eta 6k oso ondo jarraitu dute formakuntza.

Ikasleek hasieratik jarrera ona erakutsi dute eta arrakastaz burutu dute ikastaroa.

## EUSKARA SAIOAK LANBIDE HEZIKETAN

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak Lanbide Heziketako Armeria Eskola eta UNI Eibar-Ermua ikastetxeekin lankidetzan 60 orduko euskara klaseak eskaintzen ditu Erdi mailako zikloetan. Helburua euskarazko oinarritzko ezagutza jasotzea da ezer ez dakitenen kasuan. Euskara ezagutzen dutenen kasuan euskara eta lan-mundua lotzea da xedea.



**EPEA:** 2021eko urria-2022ko otsaila

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Lanbide Heziketako Armeria Eskolako Elektronika eta Telekomunikazioak taldeetakoek eta UNiko Jarduera Fisikoa eta Gizarte eta Kirola taldeetakoek jaso dituzte 60 orduko euskara klaseak.

## EUSKALTEGIEN LAN-MAHAIA


**DESKRIBAPENA:** Euskara Zerbitzuak Udal Euskaltegiarekin eta Eibarko AEKrekin euskalduntzea sustatzeko egitasmo eta proiektuak bideratzeko lan-mahaia dinamizatzen du.



**EPEA:** 2021

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** 4 bilera egin dira:  
2021/02/03, 2021/06/22, 2021/11/03 eta 2021/12/16



## GURASOAK ERE ESKOLARA EGITASMOA 2021-2022

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak, udal euskaltegiak, AEK-k eta HH eta LHko ikastetxeek lankidetzan 100 orduko euskara ikastaroak eskaini dituzte ikastetxeetan. Eskaintza ikastetxe bakoitzak egin du bere gurasoen perfila kontuan hartuta egokien iruditu zaien moduan. Hauek ere matrikularen %50 ordaindu dute ikastaroa. Astean 4 eskola ordu jasoko dituzte eta helburua euren seme-alaben euskalduntze prozesuan eurek ere euskara ikasita laguntzea da.

**Gurasoak ere eskolara 2021-2022**  
Cursos de euskera para padres y madres

¿No sabes euskera y te gustaría aprender un poco?

¿Sabes un poco de euskera, pero querías mejorar tu nivel?

Euskaraz badakizu, baina gehiago ikasi nahi duzu?

Betiko zalantzak argitu eta akatsak zuzendu nahi dituzu?

Astean 2 egun. 66 € ikasturte osoa.  
Epeka ordain daiteke.  
Kontsultatu dirulaguntzak.  
**2 días a la semana. 66 € curso completo.**  
Posibilidad de pagar a plazos.  
Consultar ayudas.

Informazio gehiago/ Más información  
Euskara Zerbitzua:  
euskara@eibar.eus / 943708426

**EPEA:** 2021eko urritik 2022ko maiatzera

**GASTUA:** Deskontuen zenbatekoa kanpaina berezien fitxan dago sartuta.

**BALORAZIOA:** Kanpaina hau egiten den 6. ikasturtea da eta 21 gurasok eman dute izena eta 2 talde osatu dira. Portalean ematen dira saioak COVIDak sortutako egoerarengatik.

Ikasturte honetan ere talde bakoitzean ikastetxe desberdinetako gurasoak egon dira, eta taldea aukeratzeko erabili den irizpidea, eguna, ordutegia, maila izan dira.

Saioak Portalean izatea auzo batzuetako gurasoentzako eragozpena izan da, ikastetxetik urrun gelditzen baitzitzaien.

Ikastaro hauen bitartez gurasoek euskara ikasteaz gain, euren seme-alaben aurrean hizkuntzari dagokionean izan beharreko jarrera egokiak ere landu dira, baita gurasoentzat oso praktikoak izan daitezkeen beste gai batzuk ere, esaterako nola lagundu etxeko lanekin.

## EUSKALTEGIEN LEHIAKETA: *GAIZKI-ULERTU LEHIAKETA*

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak euskaltegi biek in lankidetzan GAIZKI-ULERTU lehiaketa antolatu du. Sari bat epaimahaiak emandakoa eta bestea webean boto gehien jaso dituenarentzat izaten da. Lehiaketa irekia izaten da eta edonork har dezake parte.



**EPEA:** 2021eko otsaila-martxo

**GASTUA:** Coliseorako eta Armagintza museorako 4 sarrera.

**BALORAZIOA:** Lehiaketan 28 gaizki-ulertu jaso ziren. Eta honako hauek izan ziren irabazleak:

Euskaltegien irakasleak galdetu zidan ea hil ondoren nire gorpuarekin zer egitea gustatuko litzaidakeen. Nik erantzun nion nire "arrautzak" itsasora botatzea gustatuko litzaidakeela. Aurpegi arraroak sumatu nituen inguruan, baita barre txikiak ere. "arrautzak" eta "errautsak" nahastu nituen, antza. Errautsak itsasora botatzea gustatuko litzaidakeela esan nahi izan nuen.

Nere ahiztiari pasau jakon aspaldi, bere lagun Anekin gelditzeko, etxeko telefonotik sei zenbakixak banan-banan markatzen zianian.... ta batzutan, okerreko etxia suertatzen zianian:  
-¿Sí?  
- Kaixo! (Ze arrarua Anen etxequak erderaz...) Ane dao?  
-¿quééééé?  
- Ane dao? (Ánedáooo?)  
- ¿¡Nevaaar!?! ¡Aquí qué va a nevar!!!!....

## MULTIKIROLAK 2020-2021

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak ikastetxeekin eta Kirol Patronatoarekin lankidetzan Multikirolak egitasmoa bideratzen du. Euskara zerbitzutik egitasmoa burutzeko kirol monitoreen enpresa baten kontratazioan parte hartzen da, kirol jarduerak euskaraz izan daitezzen eta begiraleek euskararen erabileraren neurketa egin eta erabilera sustatu dezaten umeen artean eta baita partidetan kirol klubetatik datozen epaile eta adituen artean.



**EPEA:** 2020-2021 ikasturtea

**GASTUA:** 3.993 €

**BALORAZIOA:** Ikastetxe guztietako umeei hartu dute parte. Denboraldi honetan umeen partaidetzak behera egin du. Guztira 395 umek hartu dute parte, umeen % 37ak hartu du parte egitasmoan (Ohikoa %50a izaten da). 202 benjaminek hartu dute parte, 57 neska. 193 alebinak izan dira eta horietatik 47 neskak.

COVIDa dela 2020-2021 denboraldiko bai entrenamenduak, bai partidak ez dira ohi bezala burutu eta ez da euskararen erabileraren jarraipenik egin.

## TRANSMISIO MINGEGIA

**DESKRIBAPENA:** ...eta Kitto! Euskara Elkartek antolatzen du Udalaren babesarekin. Goiz osoko mintegia euskararen transmisioari buruzko hizlariekin eta mahai inguruarekin Euskal Herri osoko euskara teknikari, irakasle, aisialdiko begiraleei zuzendua. Aurtengoa aurrez aurre eta streaming bitartez eman da.

2021eko martxoak 16  
Udaletxeko batzar areto nagusia  
EIBAR

**XI. mintegia**  
euskararen transmisioa eta sozializazioa

**"Euskararen transmisioetik sozializaziora pandemia sasoiari"**

9:00	Ongietorria/ irekiera:
9:10	"Koronabirusa eta euskara" Majalen Lujanbio, bertsolaria
9:15	"Nola indartu ahozkoa gure ikastetxeko errealitatearen arabera? Hainbat ikerketa mintzagai" Olatz Bengoetxea, Soziolinguistika Klusterreko ikertari eta teknikaria
10:00	"Twitterreko euskal komunitatearen eduki azterketa pandemia garaian" Joseba Fernandez de Landa, EHUko HITZ zentroko ikertaria
10:45	"Euskarazko komunikabideen itsasgora eta itsasbehera sindemioak (Instagram, Netflix, WhatsApp... eta gu)" Libe Mimenza, Euskal Hedabideen Behategiko koordinatzailea
11:30	Atsedena
12:00	"Astika eta jolasa umeen bidelagun" Enaitz Alberdi eta Alaitz Andonegi, Astixa animazio zerbitzueta hezitzaileak
12:25	"Pandemia sasoiari ere, gurasoak eskolara" Sorkunde Juaristi, Eibarko Udal Euskaltegiko irakaslea; Jone Olaizola, Eibarko AEK-ko irakaslea; Junkal Txurruka, Eibarko Udaleko Euskara teknikaria
12:50	"Gurasoak Berbetan: familia erabilera sustatzen covid19 sasoiari" Maider Aranberri ...eta kitto! Euskara Elkarteko idazkaria eta euskara teknikaria.
13: 20	"Eskola kirolaren egoera pandemian" Eneko Garcia, Eskola Kirolako koordinatzailea
13:45	Agurra

Logoak: eta kitto! Euskara Elkartea, EIBAR, EUSKAL HEDABIDEEN BEHATEGIKO KOORDINATZAILEA, EUSKAL KIROLOREN EGOKIA, EUSKAL KIROLOREN EGOKIA

**EPEA:** 2021eko martxoaren 16a, asteartea, 8:45-14:30

**GASTUA:** 1.000 €

**BALORAZIOA:** Goiz osoko egitarauan 7 hitzaldi eman ziren. Aretoan bertan 40 lagun inguru egon ziren eta streaminarekin arazoak izan zirenez, ezin izan zen saioa on-line jarraitu.



## MERKATARITZA LAN-MAHAIA

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udaleko Euskara zerbitzuak, Garapen ekonomikoa, Eta kitto! Euskara elkarteak, EMGI eta ostalarien elkartearekin batera lankidetzan egitasmoak eta kanpainak aurrera ateratzeko lan-mahaia da.



**EPEA:** 2021

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Orohar mahaia osatzen duten alderdi guztiek oso positiboki baloratu dute lankidetzak.

Guztira urtean 8 bilera egin dira:

2021/01/13, 2021/04/12, 2021/04/21, 2021/05/28, 2021/09/07, 2021/10/04,  
2021/10/26 eta 2021/11/25

## BETIKOA, GERTUKOA KOMUNIKAZIO KANPAINA

**DESKRIBAPENA:** Eusko Jaurlaritzak sustatutako kanpaina izan da. Eibarko Udaleko Euskara zerbitzuak, Garapen ekonomikoa, Eta kitto, EMGI eta ostalarien elkartearekin batera komunikazio kanpaina burutuko dute.



**EPEA:** 2021 azaroa - 2022 urtarrila

**GASTUA:** Euskara Zerbitzuak 536 € jarri ditu. Gainerakoa Garapen Ekonomikoak, ...eta kitto! Euskara Elkarteak eta EMGIk jarri dute.

**BALORAZIOA:** Udalaren aldetik kalean banderolak jarri dira eta euskarazko astekariak iragarkiak ere jarri dira. Horretaz gain herriko prentsak eta bereziki Eta kitto astekariak kanpainari kobertura egokia eman diote. Horretaz gain ...eta kitto!-k Udalaren babesarekin bideratzen duen Euskaraz Primeran egitasmoaren bidez merkataritza guztiei kanpainaren berri eman zaie eta oso harrera ona izan du. EMGIk ere bere bazkide guztiei kanpainaren berri eman die eta kanpainaren zabalkundea egiten lagundu du. Lan-taldeak baloratu du kanpainaren irudia ez dela oso egokia izan bertako, gertuko eta euskaraz eskaini/eskatu ideia sustatzeko.

## JUAN SAN MARTIN BEKA 2021

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak UEUrekin lankidetzan ikerketa beka kaleratzen du 2 urtean behin. Beka 9.000€koa da, eta lehiaketa bidez esleitzen da. 2019an gaia FILOSOFIA izan da.



**EPEA:** 2021

**GASTUA:** 9.000 €

**BALORAZIOA:** XV. Juan San Martin bekaren irabazlea Eduardo Apodaka, Mitxelko Uranga eta Joseba Gabilondok osatutako taldea izan da.

2021eko deialdian bekaren bitartez landuko den arloa Filosofia izango da. Deialdi honetara 9 proiektu aurkeztu dira eta epaimahaiak aho batez erabaki du proiekturik onena Eduardo Apodakak zuzendutako Globalizazioaren ondorenaz: apokalipsia, egia-ostea eta subjektuaren autonomia" izan dela.

Proiektu honen bidez globalizazio ostearen hiru alderdi esanguratsuenak eta adigarrienak jorratu, landu eta hausnartu nahi dituzte filosofiaren hiru alor desberdinetatik (filosofiaren historia, subjektuaren filosofia, epistemologia)

## UEU DIRULAGUNTZA DEIALDIA

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak UEUn ikastaroak egiten dituzten eibartarrei eta baldintzak betetzen dituztenei matrikularen %50ari dagokion dirulaguntza ematen diete.

Ikastaro hori indarrean dagoen ikasturtean egindakoa izan behar da. **Dirulaguntza jaso ahal izateko ikastaroa 2020/09/01 eta 2021/07/31 bitartean egindakoa izan behar da.**



**ESKAERA EGITEKO EPEA:** 2021/09/30

**GASTUA:** 21 €

**BALORAZIOA:** Eskatera bakarra egon da, eta, baldintza guztiak betetzen zituenez, ontzat eman da.

COVIDak eragina izan du ikastaro eskaintzan eta baita jendearen parte hartzean ere.

## EUSKARA DIRULAGUNTZA IZENDUNAK (1)

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak Eibarren euskararen berreskurapenerako lanean diharduten elkarteekin dirulaguntza izendunak ditu. Dirulaguntza bi zatitan ordaintzen da; % 60 hitzarmena sinatzen denean eta % 40 zuriketa aurkeztu eta ontzat eman ondoren.

**Eibarko AEK 24.900 €**

Eibarren euskararen irakaskuntzan aritzeko AEK-k garatuko dituen jarduerak finantzatzea. Helduen euskalduntze-alfabetatze ikastaroen matrikula prezioak. merkatzea.



**Eta Kitto Astekaria 60.041 €**

Eta kitto astekaria argitaratzea. Eta kitto astekaria argitaratzen laguntzea. Euskararen sustapena. Euskaraz irakurtzea sustatzea Eibarko euskaldunak euskaraz irakurtzen ohitzea eta euskara gutxi edo ia ezer ez dakitenak ere euskarara gerturatzea.

**Eta Kitto Berbetan 50.908 €**

Berbetan egitasmoa burutzea  
Euskaldun berrien eta euskaldun zaharren artean harremanak sustatzea eta euskaldun berriei euskaraz praktikatzeko aukera ematea. Euskaldun berriek euskaltegian ikasitako euskara kalean, familian, merkataritzan eta ostalaritzan erabiltzea.



**Eta kitto Txikitto 13.500 €**

Txikitto aldizkaria argitaratzen laguntzea. Euskararen sustapena umeen artean. Euskarazko irakurketa sustatzea. Lehen Hezkuntzako umeen artean euskaraz irakurtzeko zaletasuna handitzea eta gurasoek eta umeek euskarazko irakurketa konpartitzea.



## EUSKARA DIRULAGUNTZA IZENDUNAK (2)

### Eta Kitto Tailerrak eta hitzaldiak 5.000 €

Tailerrak eta hitzaldiak antolatzea. Eta Kitto euskara elkarteak antolatuko dituen tailer eta hitzaldiak finantzatzen laguntzea. Euskararen sustapena. Euskararen erabilera sustatzea. Euskarazko tailer eta hitzaldi eskaintza handitzea.



### Badihardugu 1.386€

Ahozko ondarea jasotzea, ikertzea eta hedatzea. Ahozko ondarea jasotzea. Euskalkiak eta antzinako kontuak jasota, euskalkiak eta historia aztertu eta hedatzea.



### Hankamotxak Bertso Eskola 3.235€

Bertsozaletasuna sustatzea. Eibarko bertso eskolaren jarduera egitaraua burutzen laguntzea. Eibarko ume eta gaztetxoek artean bertsozaletasuna handitzea.



### UEU irakaskuntza masterra 15.000€

Eibarko Udaleren laguntzaz eraberritutako espazioa 2021. urtea



**EPEA:** 2021

**GASTUA:** 173.970 €

**BALORAZIOA:** Elkarrekin egindako gastuen zuriak aurkeztu dute eta ontzat eman da.



## DIRULAGUNTZA ERROTULUAK EUSKARAZ

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak dirulaguntza deialdia kaleratu du Eibarren dauden edo irekiko diren merkataritza establezimenduetako errotuluak eta irudi korporatiboko elementuak euskaraz jartzen laguntzeko.

LANKIDEAK:

Eibar Merkataritza Gune Irekia

...eta Kitto! Euskara Elkarte



**ESKAERA EGITEKO EPEA:** 2020/11/13-2021/11/12

**GASTUA:** 1.784,47 €

**BALORAZIOA:** Guztira 6 eskaera egon dira eta 5ek baldintzak betetzen zituztenez, jaso dute zegokien dirulaguntza. Honela banatu dira dirulaguntzak:

ERROTULU NAGUSIA	437,94 €	3
FINKOA	966,29	4
ELEMENTUAK	380,24 €	5
	<b>1784,47 €</b>	

## EIBARKO EUSKARA .EUS

**DESKRIBAPENA:** Euskara zerbitzuak KAM enpresaren bidez [www.eibarko-euskara.eus](http://www.eibarko-euskara.eus) web gunea kudeatzen du. Bertan Eibarko euskara hiztegia, argitalpenak eta Eibarko euskararen lotura duten egitasmoak daude jasota.

**GASTUA:** 759 €

**BALORAZIOA:** 2021ean 33.185 bisita izan ditu eta 14.212 erabiltzaile. Momentu honetan gune hau gehien bat Eibarko Euskara Hiztegia on line mantentzeko da.





# Eibarren **AKEBAI**



## AKEKIDEAK

**DESKRIBAPENA:** AKEBAI Batzarra osatzen duten kideak dira. Akekide izaera edukitzeko fitxa bat bete behar da erregistratuta geratzeko. Fitxa sinatzen duenak adierazten du Eibarko Hiria Euskararen Plan Estrategikoarekin bat egiten duela eta kide izateak dakartzen egitekoak eta betebeharrak onartzen dituela.

 AKEBAI

**AKEKIDE**

EIBARKO HIRIA EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOAREKIN bat egiten dut, eta AKEBAI Batzarreko kide izateak dakartzen egitekoak eta betebeharrak onartzen ditut.

**NOBANAKOIA**

**ORDEZKARIA**  Ordezkatzen dudun talde/elkarte/erakundea: \_\_\_\_\_

Kontaktuaren datuak:

Izen-abizenak:

NAN:

Jaiotze data:

Helbidea:

Telefonoa:

Emaila:

Akekide izatear gaitasunak hartzen ditut:

EKITALDIA mahaietan	<input type="checkbox"/>	BULFERA mahaietan	<input type="checkbox"/>
KIROK mahaietan	<input type="checkbox"/>	TRANSMISIO mahaietan	<input type="checkbox"/>
KOMUNIKAZIO mahaietan	<input type="checkbox"/>	BESPERIK	<input type="checkbox"/>

Data: \_\_\_\_\_

Sinadura

**EPEA:** 2021

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** 164 Akekide fitxa daude jasota.

Hala ere, Akekideekiko lotura eta harremana galtzen ari dela ikusi da. Behin izena emanda, kideak erregistratuta geratzen dira norbanako edo ordezkari gisa; baina denborarekin kideen egoera edo atxikimendua aldatu egin da, eta ez da jasotzen horren berri. Horren inguruko hausnarketa egin beharra dago.

## AKEKIDEEN BATZARRA

**DESKRIBAPENA:** AKEBAI Batzarra Akekideek osatzen dute eta plataformaren erabakigune nagusia da. Ekiptoak deituko du, gutxienez urtean birritan. AKEBAI Batzarraren egitekoak dira Ekiptoak egindako urteroko kudeaketa plana onartzea, eta AKEBAIren jardunaz hausnartu eta proposamenak egitea.



**EPEA:** 2021

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Aurreko urtean bezala, bizi dugun egoeratik, batzarrik ez egitea pentsatu du Ekiptoak.

Urtean zehar egindakoen berri emateko Akekideei 2021eko memoria eta balantzea bidaliko zaizkie.

## EKIPOA

**DESKRIBAPENA:** Euskararen Plan Estrategikoa abian jartzeko sortu zen Eibarren AKEBAI plataformak duen talde eragilea da. Nahiz eta kide batzuk bi urtez behin edo/eta urtetik urtera aldatu (euskaltegietakoak eta Euskara Batzordeko zinegotziak), Ekipoaren osaera finkatuta dago. Oro har, urteko kudeaketa planaz eta aurrekontuaz arduratzen da. Dagozkion egitekoak araudian daude zehaztuta. Gutxienez, hilean behin batzartuko da.



**EPEA:** 2021

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Ekipoa urteko aurrekontua eta plana egiteaz arduratu da, eta adostutako ekintza eta egitasmoak bideratu eta horien jarraipena eta zabalkundea egin du urtean zehar. Ekipoako kideak ekintza-taldeetan banatuta aritu dira, AKEBAIko beste kide eta eragile batzuen lankidetzarekin, egitasmoak aurrera eramaten.

Partaideak izan dira:

Udaleko euskara teknikaria, ...eta kitto! Euskara Elkarteko normalizatzailea, AEK Euskaltegiko ordezkaria, Udaleko Euskara Batzordeko zinegotzia (txandaka), Akekide boluntario bat, eta koordinatzailea. 6 kide izan ditu Ekipoak 2021ean.

14 bilera egin ditu Ekipoak urtean zehar; denak telematikoak:


2021/01/11, 2021/01/25, 2021/02/08, 2021/03/01, 2021/03/22, 2021/04/19, 2021/05/10, 2021/05/31, 2021/06/28, 2021/07/20, 2021/09/07, 2021/09/30, 2021/11/08 eta 2021/12/13.

Bileretan elkartzeaz gain, Ekipoako kideek emailez, Whatsappez eta Driven bitartez egin dute harremana eta lana. Ekintza-talde bakoitzak bere martxa eta funtzionatzeko era izan du, zegokion ekintza bideratu eta burutzeko.

## SUPER AKEAK

**DESKRIBAPENA:** LH 2. mailan landuko da egitasmoa. Helburua da umeak protagonista bihurtzea eta gurasoengan eragitea, euskara gehiago erabil dezaten. Euskarri ezberdinak erabiliz (komikia, mahai-jokoa, bideoak, abestia-koreografia,...) euskararen inguruko hainbat portaera jarriko dira agerian, eta umeek egindako lanketa horren bitartez inpaktua sortuko da gurasoengan. Horrez gain, umeek mezu bat jasoko dute: euskarak osoago eta zoriontsuago egingo dituela.

AKEk, etorkizunetik datorren pertsonaiak, misio bat jarriko die; umeek, super heroi bihurtuta (Super Akeak), Eibar hobea egiten lagunduko diote: garbiagoa, euskaldunagoa,... Bide horretan hainbat erronka gairitu beharko dituzte, balio ezberdinak landuz (euskararen erabilera, genero berdintasuna, aniztasuna, ekologia...).



**EPEA:** 2021-2022 ikasturtea

**GASTUA:** Materiala, euskarriak: 1.869 €

**BALORAZIOA:** 2021-2022 ikasturtean egitasmoa berriz martxan jartzeko prestaketa egin da.

2019-2020 ikasturtean abiatu zen lehenengoz egitasmoa, baina COVIDak sortutako egoeratik ezin izan zen behar bezala burutu. 2020-2021ean ere ez zen egoki ikusi martxan jartzea. 2021eko maiatzean, LHko ikastetxeen mahaian, berriz azaldu zen egitasmoa, eta hurrengo ikasturtean martxan jartzea proposatu zen. LHko ikastetxe guztiak prest azaldu ziren egitasmoan parte hartzeko. Ondoren, LH2ko tutoreekin bi bilera egin ziren, ekainean eta azaroan, egitasmoa burutzeko egin behar diren ekintzak azaltzeko eta kronograma adosteko eurekin.

Ikasleek erronkak gairitzeko beharko dituzten materialak eta euskarriak ere prestatu dira (txapak, komikiak, mahai-jokoa...)

2022ko urtariletik ekainera bitartean burutuko da egitasmoa

## IRAKASLEENTZAKO MOTIBAZIO SAIOAK

**DESKRIBAPENA:** Eibarren AKEBAIK ikasturte hasieran sentsibilizazio saioak eskainiko dizkie Eibarko HH eta LHko ikastetxe guztietako irakasleei. Hizkuntzaren erronkan lagungarri izango zaizkien baliabideak eskaintzea da saio hauen helburua.



**EPEA:** 2021eko irailak 3 eta 6

**GASTUA:** 2.000 €

**BALORAZIOA:** Ikasturteari indartsu eta motibatuta ekiteko, irakasleentzako mintegia antolatu du Eibarren AKEBAIK: "Erabileraren ontzia bete", EBETEK eskainia.

EBETeko irakasleek euskararen erabileran eragiteko estrategiak azaldu dizkiete Eibarko ikastetxeetako HH eta LHko irakasleei. Lau orduko ikastaroa izan da, bi egunetan banatuta; irailaren 3an eta 6an, Armeria Eskolan. Eibarko HH eta LHko zazpi ikastetxeetako klustroek hartu dute parte; 182 irakasle, lau taldetan banatuta.

Saioen balorazioa ona izan da. Amaieran banatutako balorazio fitxa 163 irakaslek bete zuten. "Ekimena, oro har, gustatu zaizu?" galderari 5etik 4,3 puntu eman zioten batez beste, eta "Lanerako baliagarria iruditu zaizu?" galderari ere 4,3.

## GAZTEENTZAKO MOTIBAZIO SAIOAK

**DESKRIBAPENA:** Eibarren AKEBAIk motibazio saioak antolatuko ditu ikastetxeetan, Eibarren aisialdian euskaraz aritzeko aukeren berri emateko eta elkarteak aurkeztu eta ezagutarazteko. Udaberri aldean egingo dira, hasiera batean Eibar BHI ikastetxean, DBH 3ko ikasleentzat. Hurrengo ikasturtean beste ikastetxeetara zabalduko da egitasmoa.



**EPEA:** 2021eko maiatza

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Eibar BHIko DBH 3. mailako 8 taldeei, 4 txandatan, bina saio eman zitzaizkien. Astixa Animazio Zerbitzuetako 2 kidek maiatzaren 3an, 4an, 5ean eta 6an eman zuten euren saioa (eguneko bat), eta Kezka Dantza Taldeko 2 kidek maiatzaren 10ean eman zuten euren saioa, lau txandatan. Jardinetako eraikinean bertan eman ziren saioak, bertako aretoan.

Balorazio ona izan dute saioek, oro har. Hurrengo ikasturtean ere egitasmo honekin jarraitzea pentsatu da -beste talde batzuekin- eta ikastetxe guztiei eskaintzea. DBH 4. maila egokiagotzat jo da era honetako saioak egiteko.

## KIROL KLUBENTZAKO MOTIBAZIO SAIOAK

**DESKRIBAPENA:** Haur eta gazteen kirol jarduerak euskalduntzeko helburuarekin, Udalak eta SD Eibarrek ematen dituzten dirulaguntzak jasotzeko baldintzetan euskara irizpidea txertatu da. Klubek euren egoerara egokitutako euskara plana egingo dute, urtekoa, Udaleko Euskara Zerbitzuaren laguntzarekin.

Euskara plana egin duten kirol klubekin harremana egingo du AKEBAIk, laguntza eskaintzeko eta eurentzat egokitutako sensibilizazio saioan parte hartzera gonbidatzeko.



**EPEA:** 2021eko azaroak 17

**GASTUA:** Barne baliabideak  
Hizlaria 260 €

**BALORAZIOA:** Azaroaren 17an, kirolean kalitatea eta euskara sustatzeko saioa izan zen Armeria Eskolan, AKEBAIk antolatua.

Eusport aholkularitzako Koikili Lertxundik bideratu zuen saioa. Eibarko 9 kirol talde bildu ziren bertan: Urki FT, Eibarko Urbat IKE, Ipurua Gimnasia Ritmica, Eibar Igerixan Kirol Kluba, Eibartarrak FT, Eibar Eskubaloia, Eibar Rugby Taldea, Judo Klub Kalamua eta Eibar Triatloi Taldea.

Giro polita sortu zen kideen artean, eta kezkak kezka eta eragozpenak eragozpen, euskararen aldeko apustuan jarraituko dutela adierazi zuten.



## HAMAIKA BERBALDI

**DESKRIBAPENA:** "Hamaika berbaldi" egitasmoaren helburuak honako hauek dira: herritarrak aktibatzea, hizkuntza eskubideak ezagutaraztea, euskaldunok ahalduntzea, euskararen aldeko diskurtsoa berritzea... eta herriko eragileekin harremanetan jarri eta lankidetzan aritzea.



**EPEA:** 2021eko azaroak 19

**GASTUA:** Barne baliabideak  
3.025 €

**BALORAZIOA:** *Hamaika berbaldi* egitasmoaren barruan, musikaz lagundutako berbaldia antolatu zuen **AKEBAIk Matraka neska\* gazte taldearekin** lankidetzan: **“Ez da kasualitatea”** bertso saio musikatua. Lanku Kultur Zerbitzuak kudeatutako saio honetan umorea, jolasa, gogoeta, emakumeon arteko konplizitatea, musika eta bertsoa uztartzen dira. Bertsoan Miren Artetxe, Alaia Martin, Eli Pagola eta Nerea Ibarzabal aritu ziren, eta gai-jartzaile lanetan Amaia Agirre.

Hainbat lagun bildu ziren azaroaren 19an Portaleko Areto Nagusian. Saio ederra izan zen bai ikusleentzat, bai parte-hartzaileentzat; publikoak bertsolarien gertutasunaz eta konplizitateaz gozatu zuen.

## HIZKUNTZA-ERABILERAREN KALE NEURKETA

**DESKRIBAPENA:** Soziolinguistika klusterrak Eibarko kaleetako hizkuntza-erabileraren neurketa egingo du. 2016an ere egin zuen, Eibarko Hiria Euskararen Plan Estrategikoa martxan jarri zen urtean. Asmoa da 5 urtetik behin egitea.



**EPEA:** 2021-2022

**GASTUA:** Soziolinguistika klusterra 6.866 €

**BALORAZIOA:** 2021ean Soziolinguistika Klusterra **Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa** ikerketa egiten hasi da Euskal Herri osoan, eta horren barruan AKEBAIk finantzatuta Eibar ere sartu da, beste udalerrri asko bezala.

**Lehen fasea,** Eibarren egindako datu-bilketa, 2021eko iraila-urria bitartean burutu zen, aparteko intzidentziarik gabe.

Ikerketaren **bigarren fasea,** herriko laginaren azterketa tekniko zehatza, ere egin da. Horren emaitza, hau da, Eibarri dagokion datu-bilketaren txostena, abenduan jaso genuen. Datu-bilketa 336 neurtzaile profesionalak egin dute Euskal Herri osoan. Eibarko kaleetan 5.865 elkarrizketa neurtu dira, eta neurtutako solaskideak guztira 15.287 izan dira.

**Hirugarren fasean,** herriz herriko erabilera-datuen azterketa burutuko da, eta **Eibarko Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa**ren emaitzen txostena 2022ko maiatzean jasoko dugu.

## ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ EGITEKO KANPAINA

**DESKRIBAPENA:** Eibarren AKEBAIk errenta aitortpena euskaraz egiteko publizitate kanpaina egingo du. Helburua da aitortpena euskaraz egiten duten eibartarren kopurua igotzea. Kanpaina eta kitto! astekarian, webgunean, sare sozialetan eta herriko hedabideetan egingo da.



**EPEA:** 2021eko martxo-ekaina

**GASTUA:** Publizitatea herri aldizkarian: 1.122 €

**BALORAZIOA:** Kanpainan erabili den leloa honako hau izan da: "**Errenta aitortpena? Duda barik, EUSKARAZ!**"

Aurreikusita zegoen bezala, martxoaren 26an ...eta kitto! aldizkariaren azalean faldoia jarri zen; beste hiru aletan \_apirilaren 16an, maiatzaren 7an eta 21ean\_ 8 moduluko iragarkia. Horrez gain, gaiari buruzko erreportajea egin da astekarian eta herritarren iritzia/testigantzak ere jaso dira.

AKEBAIren webgunean eta sare sozialetan ere eman da kanpainaren berri.

Aurreko ekitaldian 1.441 eibartarrek egin zuten aitortpena euskaraz, 14.156tik (% 10,18). **Helburua** da aurten gutxienez **1.500** izatea. Datorren urtera arte ez dugu jakingo geure buruari jarritako erronka lortu dugun.



## HIZKUNTZA ESKUBIDEEN ATARIA

**DESKRIBAPENA:** AKEBAIren asmoa da herritarrei hizkuntza eskubideen berri ematea modu argian: ordenantza, dekretu berria, erabiltzaile-kontsumitzaileen dekretua... Horrekin batera, zalantzak argitzeko, hizkuntza eskubideen urraketen berri emateko eta horiek bideratzeko kanala sortuko da.



**EPEA:** 2021

**GASTUA:** Zabalkunderako materiala: 595 €

**BALORAZIOA:** Eibartarrek eta Eibarko zerbitzuetako erabiltzaileek hizkuntza-eskubideen inguruan izan ditzaketen zalantzak, kezkak, galderak... jasotzeko eta argitzeko kanala sortu dugu; bertokoa, gertukoa, herrikoa: **“ASTINDU Eibar”** hizkuntza eskubideen ataria.

AKEBAIko Ekipoak ekainaren 8an aurkeztu zuen “astindu” egitasmoa prentsaren aurrean, Untzagako Jubilatuen Etxean. Egitasmoarekin bat egin dute Eibarko Udalak, ...eta kitto! Euskara Elkarteak, Eibar Kirol Elkarteak, Dendarien Elkarteak eta San Andres Ostalaritza Elkarteak.

Horren aurretik, beroketa fasean, ...eta kitto! aldzkarian eta sareetan hainbat mezu zabaldu ziren “Ba al dakizu?” izenburupean, herritarrei euren hizkuntza eskubideen berri emateko eta ohiturak aldatzen hasteko aholkuak emateko. Apirila-ekaina bitartean 10 mezu zabaldu ziren.

Udazkenean herritarrentzako aurkezpen saioak egitea pentsatu zen, baina ezin izan dugunez, hurrengo urtean egingo ditugu.

Herritarren aldetik 6 ekarpen iritsi dira Astindura, eta bakoitzari zegokion eran kudeatu ditugu.



## EUSKARALDIA

**DESKRIBAPENA:** Topaguneak eta Eusko Jaurlaritzak abiatutako ekimen hau Euskal Herri osoan gauzatu da 2018an eta 2020an. Herritar euskaltzaleak aktibatuta, hizkuntza-ohiturak aldatzea da dinamikaren helburua; euskaltzaleak aktibatu beren egunerokoan euskaraz bizitzeko urratsak eman ditzaten.

Hirugarren edizioaren prestaketa lanak 2021ean hasiko dira, eta ekimen masiboa 2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra bitartean egingo da. Aurreko dinamika izango da eredu: ahobizi / belarriprest eta ariguneak.



**EPEA:** 2021-2022

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Euskaraldiaren 3. edizioari begira Topaguneak deitutako foroetan parte hartu dugu, bide telematikoa erabilia.



## HAURREN AURREAN, HELDUOK HELDU

**DESKRIBAPENA:** 2021eko udazkenerako Topaguneak proposatutako aktibazio ekintza da. Guraso, begirale, hezitzaile, lagun, zaintzaile eta 0-12 urte bitarteko umeekin egoten diren bestelako senideek euren arteko (hau da, helduen arteko) hizkuntza-praktikak alda ditzaten eta euskara gehiago erabil dezaten egingo den aktibazio ekimena izango da. Euskal Herri osoan egingo da, umeak eta helduak elkartzen diren inguru informaletan. Herri bakoitzak identifikatuko ditu gunek, egokitutako euskarriak jarritz.



**EPEA:** 2021eko azaroaren 22tik abenduaren 5era

**GASTUA:** Euskarriak: 1.256 €

**BALORAZIOA:** "Haurren aurrean, helduok heldu" egitasmoari heldu edo ez erabakitzeko orduan hainbat zalantza sortu zitzaizkigun, data horretan bertoko merkataritza sustatzeko kanpaina ere martxan egongo baitzen, San Andresak, Euskararen Eguna...; eta bestalde, Euskaraldiaren dinamikarekin nahastu, eta hari indarra kentzeko arriskua ere ikusten genuen. Hala ere, helburuak guztiz bat egiten zuenez Eibarko Euskararen Plan Estrategikoarenarekin, aurrera egitea pentsatu zen.

40 lona jarri ziren herriko hainbat gune informaletan (parke, jolasgune, ikastetxe inguru, kirol instalazio...) egitasmoari ikusgarritasuna emateko, eta norbanakoak identifikatzeko pegatinak banatu ziren.

Egitasmoaren inguruko informazioa eman zitzaien ikastetxeei, aisialdiko taldeei, kirol taldeei, gurasoei (ikastetxeen bitartez eta guraso elkarleen bitartez) ... Webgunean eta sareetan ere egin genuen zabalkundea.

Gure ustez egitasmoak ez du jarraipen handirik izan, eta sareetan eta hedabideetan ere ez du presentzia handirik izan. Otsailerako Topaguneak balorazio saioa egingo du ekimenean parte hartu dugun herrietako ordezkariekin, eta orduan izango dugu balorazio orokorra.

## EIBARTIK EIBARRERA HITZALDI ZIKLOA

**DESKRIBAPENA:** Herriaren 675. urteurrenean “Eibartik Eibarrera” hitzaldi-zikloa antolatuko du Ego Ibarrek herriko hainbat elkarteren laguntzarekin; hitzaldietako bat AKEBAIren lankidetzarekin prestatuko da.



**EPEA:** 2021eko urriak 21

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Eibarren 675. urteurrenaren harira, **Ego Ibarrek AKEBAI**rekin lankidetzan “*Elkano eta Eibarko armak*” hitzaldia antolatu zuen. Jose Antonio Azpiazu historialari oñatiarrak eman zuen berbaldia urriaren 21ean, 19:30ean, udaletxean. Historialariak Eibarko eta ingurutako armagintzak izan zuen garrantziaren berri eman zuen, artxiboetan jasotako hainbat daturen bidez. Hainbat lagun bildu ziren Pleno Aretoan Azpiazuren hitzak entzuteko.

## EUSKAL ESKAINTZAREN ZABALKUNDEA

**DESKRIBAPENA:** Hilero euskararen agenda prestatzen du AKEBAIk. Agenda horretan Eibarren euskaraz edota euskararen inguruan antolatzen diren ekitaldien berri ematen da, eta horien zabalkundea egiten da Eibarren AKEBAIren webgunean eta sare sozialetan (Telegram, Facebook, Twiter, Instagram).

Euskararen agendaren zabalkunderako ez ezik, AKEBAIren beste egitasmo batzuen berri emateko ere baliatzen dira webgunea eta sare sozialak.



**EPEA:** 2021

**GASTUA:** Barne baliabideak


**BALORAZIOA:** COVID 19ak sortutako alarma egoerak hobera egitean, hainbat hilabetetan etenda egon ondoren, otsailetik aurrera, berriro ekin zaio **Eibarko euskararen agenda** kaleratzeari. 9 agenda atera dira guztira.

Zabalkunderako honako kanal hauek erabili dira: e-maila (agendaren banaketa-zerrenda, Akekideak), webguneak (akebai.eus, eibar.eus), sare sozialak (Facebook, Telegram, Twiter, Instagram), whatsapp taldeak.

Sare sozialei dagokienez, urtean zehar izandako jarraipena, honako hau:

- *Eibarren euskaraz* **Telegram** kanalak 17 kudeatzaile ditu, Eibarko kultura eragileak, eta 139 harpidedun. 128 informazio-mezu zabaldu dira urtean zehar.
- *akebai.eus* **webguneak** 4.124 bisita izan ditu 2.148 erabiltzailek eginak. 17 albiste argitaratu dira 2021ean.
- *Eibarren Akebai* **Facebook**-ek 660 jarraitzaile ditu eta 609 lagunek atsegin dute. 196 albiste kaleratu/partekatu dira.
- *Eibarren Akebai* **Twiterrek** 210 jarraitzaile ditu.
- *akebaieibarren* **Instagrammek** 492 jarraitzaile ditu





# UDAL EUSKALTEGIA



## EUSKALTEGIKO PLANTILA

**DESKRIBAPENA:** Euskaltegiako plantila 11 lagunez osatuta dago, 10 irakasle-normalizatzaile eta administrari bat. 2020-2021 ikasturtean, 4 irakasle-normalizatzaile jardun osoan klaseak ematen aritu dira, idazkari akademikoak lan jardunaren erdia karguari dagozkion bestelako lanekin bete du eta zuzendaria karguari dagozkion lanak gehi jardun erdia irakasle lanetan aritu da. Beste bi irakasle kontratatu behar izan ditugu demandari aurre egiteko: bata jardun osoan apiriletik ekainera arte, baja hartu duen irakasle bat (gero erretiroa hartu zuena) ordezkatzeko eta bestea jardun erdirako, uda ikastarora begira, beste irakasle baten bajaldia kubritzeko.

Irakasle bat normalizatzaile lanetan aritu da Euskara zerbitzuan, beste batek Euskararen Plan Estrategikoaren dinamizatzaile lanetan jardun du, hirugarren bat Pertsonal sailean zerbitzu eginkizunetan, eta laugarrena itzultzaile lanak egiten udalean.

Zuzendaria	Euskaltegian
Idazkari Akademikoa	Euskaltegian
4 Irakasle-normalizatzaile	Euskaltegian
4 Irakasle-normalizatzaile	Euskara Zerbitzuan
2 irakasle aldi baterako kontratatuta	Euskaltegian
Administraria	Euskaltegian



**EPEA:** 2020-2021 ikasturtea

**GASTUA:** 578.983 €

**BALORAZIOA:** Aurten, daukagun plantilarekin nahikoa izan dugu eman beharreko eskola-ordu guztiak eman ahal izateko, beraz, bajak izan diren arte, ez dugu kontrataziorik egin behar izan.



## EUSKALTEGIAREN ESKAINTZA

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udal Euskaltegiak eskaintzen duen zerbitzua 16 urtetik gorakoei zuzenduta dago. Europear Hizkuntzen Erreferentzia Markoak ezarritako maila guztiak eskaintzen ditu, hau da, A1etik hasita C2ra arte, goizez eta arratsalde/iluntzeko ordutegietan.

Neguko ikastaroan, Klaseak aurrez aurre eta autoikaskuntzan izan daitezke. Aurrez aurrekoen artean hainbat modulu eskaintzen ditugu: astean 10 ordukoa astelehenetik ostegunera; astean bitan 2,5 orduko saioetan (C1 mailan); astean 8 ordu (C2 mailan); ikastaro trinkoak eta 100 edo 60 orduko ikastaroak (xede berezikoak badira)...

Autoikaskuntza tutoretza eta mintza-saioekin eskaintzen da.

Uda Ikastaroan, 100 orduko aurrez aurreko klaseak izaten dira bakarrik.

**Ikastaro bereziak:** etorkinentzako harrera ikastaroa (AISA), Mintza-praktika ikastaroak, jubilatuei zuzendutakoak, gurasoei begirakoak, ikastaroak, enpresetakoak, IRALEkoak...

**Azterketa prestakuntza** eta **HABEko azterketa deialdietara aurkezteko aukera** ere eskaintzen da. 2020-2021 ikasturtean, A1, A2 eta B1 mailak euskaltegian egiaztatu ahal izan dira ebaluazio jarraituaren bitartez.

**Liburutegi zerbitzua** (mailari egokitutako liburuak maileguan) eta **ordenagailu gela** (euskara ikasteko Internetek eskaintzen dituen baliabideak) ere erabiltzeko aukera ematen zaie ikasleei.



**EPEA:** 2020-2021 ikasturtea

**BALORAZIOA:** Maila guztiak eman dira. Aipatzekoa da C2 maila lantzeko taldeak osatzea nekeza izaten dela, eta, azken urteotan, urtero lortu dela maila horretako talde bat izatea. Irailean hasitako taldea urtarrilean matrikulatutako 3 ikasle gehiagorekin osatu da.

Ikasle gehienek aurrez aurreko eskolak aukeratu badituzte ere, autoikaskuntzan 26 ikasle izan ditugu, iaz baino 11 gutxiago.

Ikastaro eta talde berezien artean, hauexek izan ditugu: Gurasoak ere eskolara kanpainatik sortutakoak (talde bakarra, iaz bezala), eta beste bat Armeria Eskolan (berria), 60 ordukoa, euren eskola orduetan txertatuta.



## MATRIKULA EPEAK ETA EGUTEGIA

**DESKRIBAPENA:** Ikasturtea bi alditan banatzen da, negu ikastaroa (urria-ekaina) eta uda ikastaroa (ekaina-uztaila). Negu ikastaroaren matrikula-aldi nagusia irailean izaten da, baina urtarrilean berriz zabaltzen da, eskaerari erantzuteko eta taldeak osatzeko. Uda ikastaroaren matrikula, ostera, ekainean izaten da. Negu ikastaroa urriaren lehenengo lanegunean hasten da eta San Juan jaien aurreko azken lanegunean amaitzen. Uda ikastaroa San Juan jaiak igaro eta lehenengo lanegunean hasten da eta 20 laneguneko iraupena du.



**EPEA:** 2020-2021 ikasturtea

**BALORAZIOA:** HABEk ezartzen dituen epeak errespetatu dira eta egutegia bete da. Hala ere, epez kanpo etorri den pertsonari dagoen eskaintza azaldu zaio eta matrikulatzeko aukera izan du.



## TASAK ETA TARIFA BEREZIAK

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udal Euskaltegiak euskara ikasteko ezarrita dauzkan prezioak ordaintzeko orduan erraztasunak emate aldera, tarifa bereziak jarri ditu zenbait kolektiborentzat. Ezinbestekoa da Eibarren erroldatuta egotea tarifa berezi hauetaz baliatzeko. Ikusi **ORDENANTZA FISKALAK** (Udalaren web orrian ikusgai)



**EPEA:** 2020-2021 ikasturtea

**BALORAZIOA:** Ikasturte honetan 117 ikasle izan dute tarifa bereziren bat (% 67)

- Aurreko ikasturteko asistentziagatik 6 ikasle (% 5,13)
- DBE-RGI izateagatik: 3 (% 2,56)
- Guraso izateagatik: 31 (% 26,50)
- Dendari, ostalari edo zerbitzuen sektorekoa izateagatik: 11 (% 9,40)
- Enplegatua izateagatik: 0 (% 0,0)
- 65 urte edo gehiago izateagatik: 1 (% 0,85)
- Langabetua izateagatik: 24 (% 20,51)
- Ikasle izateagatik: 40 (% 34,19)
- Familia ugaria izateagatik 0 (%0)



## TALDEAK, ORDUAK ETA IKASLE KOPURUA

**DESKRIBAPENA:** 2020/2021 ikasturtean 187 ikasle ibili dira Euskaltegian 15 taldetan banatuta, guztira 28.649 ordu eman dira Neguko eta Uda Ikastaroaren artean.

2019/2020		Talde kopurua	Emandako ordu kopurua	Ikasle kopurua
Negu Ikastaroa	Aurrez aurre	14	26.099	161
	Autoikaskuntzan	1	-	27
Uda Ikastaroa	Aurrez aurre	2	2.550	26

Maila guztiak eman dira:

A1	A2	B1	B2	C1	C2
OINARRIZKO ERABILTZAILEA		ERABILTZAILE AURRERATUA		ERABILTZAILE ADITUA	
Hasierako erabiltzailea	Oinarrizko erabiltzailea	Erabiltzaile independentea	Erabiltzaile aurreratua	Erabiltzaile gaitua	Erabiltzaile aditua
- Talde 1 334 ordukoa  - Talde 1 100 ordukoak <b>(gurasoak)</b>  - Talde 1 60 ordukoa <b>(Armeria eskola)</b>	- Talde 1 334 ordukoak	- 2 Talde 334 ordukoak	- 4 talde 2, 334 ordukoak 1, 100 ordukoa (uda)  Talde 1 (Armeria eskola) (60 ordu)	- 3 talde 2, 334 ordukoak 1, 100 ordukoa (Uda)	- Talde 1 280 ordukoa
Autoikaskun.	Autoikaskun.	Autoikaskun.	Autoikaskun.	Autoikaskun.	Autoikaskun.
4	4	6	3	9	-

**EPEA:** 2020-2021 ikasturtea

**BALORAZIOA:** 2020-2021 ikasturtean, aurreko ikasturtean baino 28 ikasle gutxiago izan ditugu. Osasun-egoera izan liteke jaitsieraren arrazoia, izan ere, taldean ikasten denez, nahiz eta behar bezalako neurriak hartu, jendeak beldur dio elkartzeari eta egunean bi ordu eta erdi ikaskideekin partekatzeari. Jubilatuen kasuan, esaterako, arrazoi hori eman dute ez euskaltegiratzeko, eta ibilitako beste zenbait ikaslek ere bai. Orduei dagokienez, 28.649 ordu eman dira. Aurrez aurreko 14 talde izan ditugu aurten (autoikaskuntzako ikasleekin beste bat konputatzen da HABEren aurrean), iaz bezala. Aurten ez da egon C1eko astean 5 orduko talderik, jublatu-talderik ere ez, ezta AISA (etorkinentzako harrera-ikastaroa) ezta IRALEko talderik ere. Gurasoak ere eskolara kanpainatik 100 orduko talde bat izan dugu, iaz bezala. Taldeetan ratioa apur bat baxuagoa izan da, 9 ingurukoa, iaz baino puntu bat gutxiago.






## IKASLEAREN PROFILA

**DESKRIBAPENA:** 2020-2021 ikasturteko ikaslearen profila ondorengoa da:

SEXUA	
Emakumezkoak	121 (% 64,70)
Gizonezkoak	66 (% 35,30)
IKASKETA MAILA	
Unibertsitate-gradua	86 (% 45,99)
UBI-LHII	55 (% 29,41)
Eskola graduatua	39 (% 20,86)
Beste	7 (% 3,74)

LAN EGOERA	
Lanean edo ikasten	72 (% 38,50)
Langabezia	115 (% 61,50)
ADINA	
16 - 25	60 (% 32,09)
26 - 35	35 (% 18,72)
36 - 45	40 (% 21,39)
46 - 55	37 (% 19,97)
56 - 65	13 (% 6,95)
>65	2 (% 1,06)



**EPEA:** 2020-2021 ikasturtea

**BALORAZIOA:** Betiko joerari jarraituta, ikasleen profilari begira, ikasleen ia % 65 emakumezkoak izan dira eta % 35 gizonak. Titulazioari erreparatuta, gehienek goi eta erdi mailako titulazioa dute, eta batez besteko adina 26-35 urtekoa da, orain artekoa baino zertxobait baxuagoa. Langabetuak 115 izan dira, % 61,50, aurrekoan baino dexente gehiago (iaz % 26koa izan zen).



## HABEREN AZTERTZAILEAK

**DESKRIBAPENA:** Urtero HABEk maila egiaztatzeko 2 deialdi egiten ditu, bata maiatzak-ekaina aldera (deialdi itxia) eta bestea urria-azaroa aldera (deialdi itxia zein irekia). Azterketa hauek zaintzeko eta zuzentzeko irakasleak behar izaten ditu. Eibarko Udal Euskaltegiak maila guztietan ditu aztertzaileak. Azterketa deialdi bakoitzaren aurretik Bateratze Saioak antolatzen ditu HABEk eta horietan parte hartzen dute maila guztietako aztertzaileek azterketak zuzentzeko orduan irizpide bateratuak izateko.



**EPEA:** 2020-2021 ikasturtea

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Komenigarri irizten diogu maila guztietan aztertzaileak izateari; alde batetik, gure ikasleei irizpideak eta aholkuak emateko eta bestetik, profesionalak garen aldetik, gure lanean etengabe eguneratuak egoteko. HABEren bateratze saioen ondoren, saiatzen gara gure artean, eta denon parte hartzearekin, antzeko saioak egiten, Eibarko Udal Euskaltegiko irakasleok maila guztien ikuspegi orokorra izan dezagun. 2021ean B2ko aztertzaileak erretiroa hartu duenez, zuzendariak egin du eskaera haren ordeztzeko, euskaltegian hutsunerik egon ez dadin B2 mailari dagokionez.





## FORMAZIOA

- **DESKRIBAPENA:** Udal Euskaltegiko langileek etengabeko formazioa jasotzen dute, besteak beste, euren lana eguneratzeko eta eskabide berriei erantzuteko. Formakuntza hori, gehienetan, didaktika arloan zein administrazio arloan izaten da, beti ere, kontuan hartuta unean uneko beharrak, eskaintzak eta eskabideak zein diren.



**EPEA:** 2020-2021 ikasturtea

**GASTUA:** Barne baliabideak

**IKASTAROEN ZERRENDA:**

IKASTAROA	ANTOLATZAILEA	PARTE- HARTZAILEAK
HEOCaren B1 mailaren egiaztatzailea- Aztertzailegaien bateratze-saioak	HABE	Irakasle 1
HEOCaren B2 mailaren egiaztatzailea- Aztertzailegaien bateratze-saioak	HABE	Irakasle 1
HEOCaren C1 mailaren egiaztatzailea- Aztertzailegaien bateratze-saioak	HABE	2 irakasle
HEOCaren C2 mailaren egiaztatzailea- Aztertzailegaien bateratze-saioak	HABE	Irakasle 1
Idazkuntzaren hasi-masiak: Kohesioa	Euskaltegia/Udala	Irakasle guztiak



## KANPO EKINTZAK (1)

**DESKRIBAPENA:** Ikasturtean zehar euskaltegiko jarduna osatzeko asmoz eta ikasleak euskaltegiko esparrutik kanpo euskara entzun eta erabiltzeko helburuarekin egiten diren ekintzak dira. Batzuk euskaltegiak berak antolatzen ditu, beste batzuk Euskara Sailak edo Kultura Sailak eskaintzen dituzte eta beste hainbat Eibarko talde eragile batzuek programatzen dituzte. Eskaintza aztertu egiten da, eta ikastaldearen euskara maila kontuan hartzen da proposamena taldeetan zabaldu baino lehen, baldin eta ekintza hori eskola orduetan egiten bada. Bestelako ekintzen berri zabaltzen da eta ikasleak animatzen ditugu parte hartzera. Uda ikastaroan ez da kanpo ekintzarik antolatzen.



**EPEA:** 2020-2021 ikasturtea

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Orokorrean ikasleek gustura hartzen dituzte kanpo ekintzak, klasearen egunerokotasunetik irteteko aukera ikusten baitute horrelakoetan. Hala ere, kontuan hartu behar da ikasleen gustuak agintzen duela honetan ere, eta zenbaitetan bultzatu egin behar izaten direla parte har dezaten. Hori horrela, denon satisfazio maila ez da bera izaten. Esan beharrik ez dago guk ezinbesteko ikusten dugula kanpo ekintzak antolatzea, ikasleek euskaltegitik kanpo euskaraz antolatzen denaren berri izan dezaten, batetik; bestetik, giro euskaldunean murgil daitezten. Esan gabe doa uneko osasun-egoerak asko badintzatu gaituela arlo honetan.

Taulan aipatutakoez gain, hilabetero jartzen da euskaltegiko ohar-taulan hilabeterako antolatutako ekintzen agenda.



## KANPO EKINTZAK (2)



### EKINTZEN ZERRENDA:

<b>2020ko IRAILA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• BERBETAN egitasmoaren jaialdia Untzaga plazan</li> </ul>
<b>2020ko AZAROA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gaztaiñerre (argazki-lehiaketa, pastak)</li> <li>• BERBETAN programaren aurkezpena</li> <li>• EUSKARALDIaren aurkezpena</li> </ul>
<b>2020ko ABENDUA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gabonetako otarra</li> <li>• Euskararen eguna: Euskarak zer iradokitzen dizu?</li> <li>• EITB maratoirako bertsoa</li> </ul>
<b>2021eko URTARRILA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• "Loreak eta zauriak" kontzertua Coliseoan</li> </ul>
<b>2021eko OTSAILA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gaizki-ulertu lehiaketa (AEK eta Udalarekin batera)</li> <li>• "Kutsidazu bidea, Ixabel" antzezlana</li> <li>• Antzerki jardunaldiak: "Lurrun minez"</li> <li>• Behe mailako ikasleen errezetak, trikimailuak, aholkuak ... euskaltegiko hormetan, eta IKASBIL dokumentu-biltegian.</li> </ul>
<b>2021eko MARTXOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Antzerki Jrdunaldiak: "Ameriketako bidaia", Atzerrian lurra garratz", "Ez dok ero"</li> <li>• "Bultza euskaltegiak, bultza euskara! emanaldia</li> </ul>
<b>2021eko APIRILA-EKAINA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ipuin-kontaketa: "80 amandre"</li> <li>• "Errepublikaren 90. Urtemuga" hitzaldia</li> </ul>



## LIBURUTEGI ZERBITZUA

**DESKRIBAPENA:** Euskaltegiak ikasleen eskura jartzen du liburuen mailegu-zerbitzua. Euskaltegian matrikulatuta dagoen ikasle orok du zerbitzu hau erabiltzeko aukera. Ikasleak liburua aukeratzen du, batzuetan irakasleak gomendatuta eta beste batzuetan bere gustuz, eta dagokion fitxa bete ondoren etxera eraman dezake. Liburua bueltatzeko epea 2 hilabetekoa da. Eskaintzen diren liburu gehienak eleberririk dira; izan ere, hauek dira errazen irakurtzen dituztenak. Urtero liburu berriak erosten dira, argitaletxeen nobedadeak ikusi eta gero edota irakasle edo ikasleren batek gomendatuta.



**EPEA:** 2020-2021 ikasturtea


**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Ikasleek eskertzen dute zerbitzu hau; izan ere, Udal Liburutegiak liburuak irakurtzeko eskaintzen dien epea motza da ikasle askorentzat. Eta gainera liburu askok, liburu barruan, ikasleen iritzia dute idatzita. 148 aldiz erabili da mailegu zerbitzu hau.



## EGIAZTATZEGINTZA

**DESKRIBAPENA:** A1 eta A2 mailak ebaluazio jarraituaren bidez egiaztatzen dira. Horretarako, ikasleek euskaltegian maila emateaz gain, beste baldintza batzuk ere bete behar dituzte (gutxieneko asistentzia, laginak jasotzea...). B1, B2, C1 eta C2 mailetan, berriz, maila egiaztatzeko ikasleak azterketa ofizialetara aurkeztu behar izaten dira. Euskaltegietako ikasleek, baldintza batzuk betez gero, HABEren deialdi itxietara aurkezteko aukera izaten dute, baina badaude beste aukera batzuk maila egiaztatzeko, besteak beste, HABEren deialdi librea, Hizkuntza Eskolako azterketak, IVAPekoak...



**EPEA:** 2020-2021 ikasturtea


**BALORAZIOA:** 2020ko 2. deialdiako emaitzak batez besteko orokorrak baino hobekak izan dira gurean, maila guztietan. 2021ko 1. deialdian, C1 mailan batez bestekoa jaitsi bada ere, B2n eta C2n, orokorrak baino altuxeagoak izan dira. Kopuruetara etorrira: 2020ko 2. deialdira 33 ikasle aurkeztu ziren, eta 15ek (%45,45) lortu zuten agiria. 2021eko 1. deialdian, ostera, 54 aurkeztu eta 34k eskuratu zuten titulua (%63). Azken urteotan bezala, A1 eta A2 mailak ebaluazio jarraituaren bidez egiaztatu dira. Horretarako ezinbestekoa izan da maila gaitziteaz gain, % 75eko asistentzia izatea eta ebaluazio laginak (diagnosia, tarteko jarduerak eta ikastaro bukaerakoa) jasota izatea. Baldintza horiek beteta, A1 maila 7 ikaslek lortu dute (% 33,3k), A2 maila 3k (%30ek).



## COVID19AREN ERAGINA EUSKALTEGIAN

**DESKRIBAPENA:** Ikasturtea aurrez aurreko taldeekin hasi dugu. Hala ere, erabaki da aurrez aurreko saioak Moodle plataforman ere txertatzea, egunez egun, balizko etxealdiei eta positibo-kopuruari aurre egin ahal izateko. Gelan eskoletarako ezarritako neurriak bete dira (ikasle kopurua, distantzia, higiene-neurriak, paper-truke ahalik eta txikiena, norabidea zehazteko seinalizazioa...) eta ez dugu aparteko arazorik izan. Ikasleek, hala egokitu zaienean, aipatutako plataformaren bidez jarraitu dituzte eskolak eta ez dute arazorik izan taldearen martxari jarraitzeko. Bi irakasle egon dira batera konfinatuta, eta euskarriak haiei ere aukera bikaina eskaini die klaseak etxetik eman ahal izateko. Beraz, egoerak eskatutako baliabideak erabilita egin ahal izan diogu aurre pandemiak ekarritakoari.

Gelara ere ordenagailua ekarri dute ikasle gehienek, inprimatu barik ariketak bertan egin ahal izateko. Oro har, ez dute eragozpenik izan.



**EPEA:** 2020-2021 ikasturtea

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** On line bidezko aukerari aparta deritzogu, pandemia amaituta ere, sor daitezkeen ezbeharrei behar bezala erantzuteko. Aurrera begira ere horrela jarraitzeko asmoa dugu.

Aipatzekoa da irakasleek egin behar izan duten lana teknologiak eskatzen duen dedikaziora egokitzeko, batez ere, behe mailetan. Izan ere, on line bidezko saioak bi hizkuntzatan jarri behar izan dituzte, ziurtatzeko ikasleek ulertu egiten zituztela bertako jarraibideak.

Uda ikastaroa ere bide beretik eman dugu.



